



# NAFARROAKO PARLAMENTUKO

## ALDIZKARI OFIZIALA

VII. legegintzaldia

Iruña, 2011ko urtarrilaren 10a

1. ZK.

### A U R K I B I D E A

#### B SAILA:

##### **Foru lege proposamenak:**

—Nafarroan euskara normalizatzeko Foru Lege proposamena. Nafarroa Bai parlamentu-taldeak aurkeztu du (3. or.).

#### E SAILA:

##### **Jabeldurak, mozioak eta adierazpen politikoak:**

—Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernuak premiatzen da Parlamentura igor dezan Nafarroako Hondakin Kudeaketarako Plan Integratua, Nafarroako Gobernuak abenduaren 27an onetsitakoa, parlamentuan eztabaida eta onets dadin. Nafarroa Bai parlamentu-taldeak aurkeztu du (11. or.).

—Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernuak premiatzen da 2011ko martxoaren 1a baino lehen LTDko kate berriak ikusi ahal izateko Foru Komunitateko lurralde osoari estaldura ematera. Berrikuntza, Enpresa eta Enplegu Batzordeak onetsia (12. or.).

—Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernuak premiatzen da zabalkunde instituzionaleko plan bat egin dezan Nafarroako Udal eta Kontzejuen Federazioarekin lankidetzan, tokiko hauteskundeetan sufragio-eskubidea sustatzeko. Erakundeekiko Harremanetarako eta Gobernuaren Eledunaren Batzordeak onetsia (12. or.).

#### F SAILA:

##### **Galderak:**

—Galdera, turismoaren sustapenerako iragarkiak jarri diren komunikabideei eta horretarako erabilitako hizkuntzei buruzkoa, Aitor Etxarri Pellejero jaunak egina (13. or.).

—Galdera, Nafarroako Enplegu Zerbitzuan izena emanda dauden 35 urtetik beherako gazteen kopuruari buruzkoa, Aitor Etxarri Pellejero jaunak egina (14. or.).

—Galdera, abeltzainei esnearengatik ordaintzen zaien prezioak esne-ustiategiak bideragarri egin ditzan Nafarroako Gobernuak hartutako neurriei buruzkoa, Aitor Etxarri Pellejero jaunak egina (14. or.).

—Galdera, N-121-A errepideko zenbait tartetan istripu gehiago ez gertatzeko hartutako neurriei buruzkoa, Aitor Etxarri Pellejero jaunak egina (15. or.).

—Galdera, 2011ko aurrekontuetako “Lurzoruaren Foru Bankuaren Salmenta” izeneko kontusailarekin zehazki hartuko diren neurriei eta egingen diren ekimen edo salmentei buruzkoa, Ioseba Eceolaza Latorre jaunak eginga (15. or.).

—Galdera, Nafarroako epaitegien Iruñeko eraikina handitzeko obren egoerari buruzkoa. Amanda Acedo Suberbila andreak eginga (16. or.).

**G SAILA:**

**Txostenak, deialdiak eta Parlamentuko informazioa:**

—Deialdia, Nafarroako Parlamentuaren zerbitzuko euskara itzultzaile izateko lanpostu huts bat lekualdatze-lehiaketa bidez betetzekoa (17. or.).

—Deialdia, Nafarroako Parlamentuaren zerbitzuko komunikazio teknikaria izateko lanpostu huts bat lekualdatze-lehiaketa bidez betetzekoa (23. or.).

—Deialdia, Nafarroako Parlamentuaren zerbitzuko administrazio kudeaketako teknikaria –teknikari diplomadunen eskalakoan– izateko lanpostu huts bat lekualdatze lehiaketa bidez betetzekoa (29. or.).

—Deialdia, Nafarroako Comptos Ganberaren zerbitzuko auditore izateko lanpostu huts bat oposizio-lehiaketa bidez betetzekoa. Izendapen-proposamena (35. or.).

—Nafarroako Comptos Ganberaren Erregistro Orokorren 2011. urterako ordutegi ofiziala (35. or.).

---

**B saila:**  
**FORU LEGE PROPOSAMENAK**

---

## **Nafarroan euskara normalizatzeko Foru Lege proposamena.**

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2010eko abenduaren 29an egindako bilkuran, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobe-tzeari buruzko Lege Organikoaren 19.1.b) artikulua aitortzen dion legegintzarako ekimena erabiliz, Nafarroa Bai parlamentu-taldeak aurkeztu du Nafarroan euskara normalizatzeko Foru Lege proposamena.

Hori horrela, Legebiltzarreko Erregelamenduko 147. artikuluan ezarritakoarekin bat, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, hona

### **ERABAKIA:**

1. Nafarroan euskara normalizatzeko Foru Lege proposamena Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

2. Foru lege proposamen hori Nafarroako Gobernuari igortzea, Erregelamenduko 147. artikuluan ezarritako ondorioetarako.

Iruñean, 2010eko abenduaren 29an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

## **Nafarroan euskara normalizatzeko Foru Lege proposamena**

### **ZIOEN AZALPENA**

Abenduaren 15eko 18/1986 Foru Legea, Euskarari buruzkoa, onetsi zenetik 24 urte bete direnean, aitortu beharra dago lege horrek, bere zati-keta linguistikoarekin, ez duela bete lege guztiak bilatzen duten helburua: sortu dituen gizartearen premiei erantzutea.

Euskara oinarritzko elementu bat da Nafarroako identitatearen osaeran eta nortasunean. Beste lurralde batzuekin partekatutako hizkuntza bat da euskara, baina Nafarroako Erresumaren hizkuntza berekia izan da beti, zeina, historiaren era askotako gertakarien ondorioz, "arrisku" egoera batera iritsi baita, UNESCOk emaniko kalifikazioaren arabera. Errealitate hori zenbait faktoreren ondorio

da: pairatu duen jazarpen politikoa eta gaztelanien inposizioa, mendetan gertatu dena; baldintza politiko eta sozioekonomikoak, eta haiekin batera gertatu diren aldaketa demografikoak; eta eremu murriztuko hizkuntza izatea, bereziki gaurko munduan, non komunikazioak, informazioak eta kulturaren industriek mundializaziorako joera baitute.

Horren ondorioz, euskara Nafarroan egoera soziolinguistiko zailean da.

Euskarari buruzko Foru Legea 1986an onetsi zenetik, euskararen egoera soziala nabarmen aldatu da Nafarroan. Aski handitu da, batetik, Nafarroa osoan euskaraz hezi diren eta hizkuntza horretan normaltasun osoz bizi eta lan egin nahi dutenen kopurua, batez ere belaunaldi berrietan. Eta, bestetik, Nafarroako gizarteak euskararen aldeko etengabeko apustua egin du: beren herrietako ikastetxe publikoetan euskarazko irakaskuntza ez duten familientzako ikastolak sortuz, euskarazko hedabideak martxan jarriz, ETB hartzeko errepikagailuak ezarriz, herrietan euskaltegiak zabalduz... Nafarroako gizarteak bere ekimenez erdietsi du euskaldunentzako hainbeste aukera eta zerbitzu, legeak eman ez dituenak, legeak aurreikusi ez dituenak edo, legearen izenean, ukatu direnak.

Batetik, Nafarrek euskararen sustapenaren eta normalizazioaren alde erakutsi duten borondateak, Nafarroako Gobernuak gaur arte eginiko azterlan soziolinguistikoetan erakusten denak, eta, bestetik, Parlamentuak berak bildutako datuek, euskarazko matrikulazioari buruzko datu positiboei batera, erakusten dute Nafarroako populazioa, urteak joan urteak etorri, gero eta elebidunagoa dela; hau da, euskaldun gehiago dituela bere baitan. Gizartearen sektore horrek administrazioei eskatzen die, legez dauzkan hizkuntza eskubideez baliatuta, gero eta zerbitzu gehiago eman dituzan euskaraz. Eta zerbitzu publikoaren bokazioa duten erakunde nafarrek behar bezalako erantzuna eman beharko diote eskaera horri.

24 urte hauetan, ez da soilik aldatu Nafarroako Foru Komunitatearen errealitate soziolinguistikoa,

Nafarroako botere publikoak lotzen dituen arau-esparrua ere aldatu da; horrenbestez, Nafarroako legea egokitu egin beharra dago.

2001eko apirilaren bederatzian berretsi zen Erregio edo Gutxiengoan Hizkuntzen Europako Gutuna, eta urte hartatik beretik da foru antolamenduaren zatia. Bada, gutun horrek, bere helburu eta printzipioen artean, ezartzen du ezen jada existitzen diren zatiketa administratiboek edo egiten diren zatiketa berriek ez dutela oztopo izan behar euskararen sustapenerako.

Berriki, otsailaren 23ko 2/2010 Foru Legea onetsi da, Euskarari buruzko abenduaren 15eko 18/1986 Foru Legearen 5.1. artikuluko a) eta b) letrak aldatzen dituen. Lege horren onespenez agerian utzi du gainditu egin behar direla, gainditu behar direnez, zonifikazioak Nafarroako herritarren eskubideetarako eta borondaterako dakartzan mugaketa eta arbitrariotasuna. Horrelaxe ulertu behar da 2/2010 Foru Legea onetsi bezain laster, eremu ez euskalduneko zenbait udaletako alkateek beren eskubideen zabalpena eskatzea, euskararen erabilerari, irakaskuntzari eta presentziari dagokienez.

Erregio edo Gutxiengoan Hizkuntzen Europako Gutunak foru botere publikoei ezartzen die euskara Nafarroako Foru Komunitatean erabiltzeari buruzko murrizketa edo zailtasun guztiak deuseztatzeko betebeharra.

Nafarroako gizarteak behin eta berriz, eta zenbait bitarteko erabiliz, erreklamatu ditu Nafarroan euskararen erabileraren, irakaskuntzaren eta presentziaren babesa, defentsa eta sustapena. Euskarari buruzko abenduaren 15eko 18/1986 Foru Legea bera da, gaur egun, bere artikuluetan ezarritako helburuak betetzeko oztoporik handiena. Gaur, erronka eta premia berrien aurrean, beste lege bat behar dugu. Lege horrek elementu integratzailea eta biltzailea izan behar du gure erkidegoan dauden hizkuntza errealitate guztietarako.

Euskara eta gaztelania lurralde honetako hizkuntza berekiak dira, eta biak era berean hartu behar dira. Aitortuta hizkuntza elementu integratzailea dela, gure antolamendu juridikoan sartu behar dira Nafarroako herritarrek hizkuntzaren arloan dauzkaten eskubideak, eta horretarako behar diren neurriak ezarri beharko dira, guztiek, bizi diren tokian bizi direla ere, Administrazioarekiko harremanak euskaraz eduki ahal ditzaten, euskara ikasi eta euskaraz hezi ahal daitezen, euskarazko hedabideak eduki ditzaten, aisiarako eskubideaz goza dezaten, kulturarako sarbidea izan dezaten, toponimia euskaraz egon dadin...;

hau da, Nafarroan euskaraz bizitzeko eskubidea eta askatasuna egon dadin.

Honakoak dira foru lege honen oinarriak:

Berdintasuna ziurtatu behar du Nafarroako bi hizkuntza erkidegoentzat. Nafarroako bi hizkuntzek lege-estatus bera izan behar dute. Euskarari gaztelaniak duen estatus bera eman behar zaio; hau da, euskarari ofizialtasuna aitortu behar zaio Nafarroa osoan, hori baita herritarren arteko berdintasuna ziurtatzeko lehen baldintza. Hizkuntza politikak nafar euskaldunentzat baztertzailak diren egungo lege-arauak zuzenduko ditu, Foruaren Hobekuntzako 9. artikulutik hasita.

Herritarrek, beren borondatearen arabera, aukeran izanen dute Nafarroako zein hizkuntza erabili, eta Administrazioak herritarren borondatea, hautatzeko eskubidea, babestu beharko du.

Nafar guztien hizkuntza eskubideak ziurtatuko ditu, euskaldunena eta gaztelaniadunena. Hori Nafarroan ezarrita dauden administrazio guztiek kontuan hartu beharrekoa izanen da.

Historikoki zokoratua eta legez menpekota izan den hizkuntzaren aldeko ekintza positiboa eraginen du. Euskarak gaztelaniarekiko parekotasuna lortuko du murrizten direnean hizkuntza bi horien arteko aldeak, zeinak urtetako politika diskriminatzaileen eraginez sortuak baitira. Ekintza positiboa demokraziaren tresna bat da, demokraziak egoera juridikoak parekatzeko darabilena.

Legeak malgutasuna aurreikusiko du, hizkuntza politika Nafarroa osoan ezartzeko aplikazio mailakatuak ahalbidetzeari dagokionez. Herritarren hizkuntza eskubideak babesteko lurralde osorako gutxienekoak zehaztuko dira, eta tokian tokiko egoera soziolinguistikoari egokitutako hizkuntza politika eginen da. Toki entitateek egiteko garrantzitsua izanen dute hizkuntza politikaren mailak eta intentsitateak definitzeko orduan.

Progresiboa izanen da; hau da, ofizialtasunari lotutako neurriak progresiboki aplikatuko dira, errealitate soziolinguistiko fenomeno dinamikotzat harturik.

Europarra izanen da, aintzat hartuko baititu Erregio edo Gutxiengoan Hizkuntzen Europako Gutunean jasotako balio eta neurriak eta Europako Kontseiluaren gomendioak.

Zeharkakoa izanen da, zeren eta gure erkidegoko hizkuntzei eman beharreko trataerak ez baitu egon behar, gure ustez, Administrazioaren departamentu bakar bati lotuta; hizkuntza horien trataerak, aitzitik, jarduera politiko osoa blaituko duen zeharkako balio eta irizpidea izan behar du.

## LEGE HONEN XEDEA

Honakoak dira lege honen xedeak: herritarrek euskara ezagutu eta erabiltzeko daukaten eskubidea babestea; erabilera eta irakaskuntza ziurtatzea, borondatezkotasuneko, gradualtasuneko eta errespetuko printzipioen arabera; hedabideetan eta kultur industrietan euskararen presentzia sustatzea eta hizkuntza araudi bat ezartzea mundu sozioekonomiko berrirako, hori guztia aurrera egite aldera euskararen ezagutza osoa eta erabilera normala orokortzearen bidean. Eta horrek guztiak aukera eman behar digu euskararen erabilera soziala bultzatzeko. Nafarroako euskalkiak ere bereziki errespetatu eta babesteko dira.

Legea oinarritzen duten printzipio orokorretatik abiatuta, Atariko Tituluak aitortzen du euskara eta gaztelania Nafarroako hizkuntza berekiak direla eta euskara nahiz gaztelania hizkuntza ofizialak direla Nafarroako lurraldean. Tituluan berean galarrastan da hizkuntza dela-eta inor diskriminatua izatea.

Lehendabiziko tituluak biltzen ditu herritarren eskubideak eta botere publikoek hizkuntzaren arloan dauzkaten betebeharrak.

Bigarren tituluak botere publikoen jarduerak arautzen ditu. Lehenengo kapituluan Administrazio Publikoan euskarak izanzen duen erabilera aztertzen du, eta aitortzen du Foru Administrazioarekiko harremanetan herritarrek euskara eta gaztelania erabiltzeko eskubidea dutela. Halaber, dokumentuak erregistro publikoetan nola inskribatuko diren arautzen du, eta ezartzen du elebitan argitaratuko direla Administrazioaren xedapen edo ebazpenak edo ekintzak, bai eta jakinarazpen eta komunikazioak ere. Ahalmena ematen zaio herritar orori berak hautatutako hizkuntza ofiziala erabiltzeko Justizia Administrazioarekiko harremanetan. Gobernuari edo tokiko entitateei ahalmena ematen zaie Nafarroako Foru Komunitateko herrien izen ofizialak eta, oro har, toponimoak ezartzeko. Bide-seinale eta -mezuen idazketa arautzen da. Ezartzen du ele bitan idatziko direla botere publikoek, bai eta Nafarroan jatorria duten garraio publikoko zerbitzuek ere, erabili beharreko inprimaki edo eredu ofizialak. Administrazio Publikoari atxikitako langileak progresiboki euskalduntzea aurreikusten da.

Bigarren kapituluan, euskara irakaskuntzan nola erabiliko den arautzen da. Ikasle guztiei aitortzen zaie irakaskuntza euskaraz jasotzeko eskubidea, eta arautzen da derrigorrez irakatsi beharko dela irakaskuntzarako hautatu ez den hizkuntza ofiziala. Gobernuaren eskuetan uzten du bi hizkuntza ofizialen behar adinako ezagutza lortzera bide-

ratutako neurriak hartzea eta ikasketa planak egokitzea. Irakasleen prestakuntzari dagokionez, aurreikusten da ikasketa-planak egokitzea euskarazko eta gaztelaniazko erabateko gaikuntza lortzeko.

Hirugarren kapituluan arautzen da euskarak hedabideetan izanzen duen erabilera, eta aitortzen da gure erkidego pertsona orok duela eskubidea informazioa euskaraz jasotzeko. Gobernuari esleitzen dio euskara Nafarroako Foru Komunitateko hedabideetan sustatzea eta haien bultzatzea, bai eta euskara honako hauek sustatzeko eta babesteko neurriak ezartzea ere: irrati-difusioa, prentsa, irudiaren eta soinuaren erreproduktzioarako baliabideak, eta abar.

Laugarren kapituluan, jarduera sozioekonomikoa aipatzen da, enpresa publikoei, zerbitzu publikoak ematen dituzten enpresei, itundutako enpresei edo diruz lagundutako enpresei dagokienez eta jarduera profesionalari eta laboralari dagokienez, eta aitortzen da nafar guztiek, arlo horietan guztietan, eskubidea dutela beren harremanak ezartzeko lege honetako 5. artikuluan ezarritakoaren arabera.

Bosgarren kapitulua euskararen erabilera sozialari eta beste alderdi instituzional batzuei buruzkoa da, eta Gobernuaren esku uzten du, batetik, euskaraz ez dakiten helduentzako irakaskuntza eta euskaldunak diren herritarren alfabetatzea, eta, bestetik, zenbait arlotan euskararen erabilera sustatzea. Eta aurreikusten du Gobernuak elkar-gune izanzen den organo bat sortuko duela, lege honen aplikazioa eta garapena koordinatzeko.

Seigarren kapituluan, Gobernuaren esku uzten da idatzizko euskara ofizial komunaren bateratzea eta normalizazioa behatzea.

Lehenengo xedapen gehigarrian, Nafarroako Parlamentuari esleitzen zaio Nafarroako Gobernuaren esku uztea, LORAFNAko 71. artikuluan ezarritakoarekin bat, LORAFNAko 9. artikulua aldatzeko ekimena hartzearen erabakia. Halaber, LORAFNAko aipatutako 9. artikulurako testu berria proposatzen da.

Bigarren xedapen gehigarriak Nafarroako Gobernuari esleitzen dio loturak, hitzarmenak eta abar egiteko eskumena Nafarroako Foru Komunitatetik kanpo jardun arren euskal kulturarekin eta euskararekin lotutako jarduerak egiten dituzten erakunde edo botereekin, betiere Nafarroako eskumen berekien errespetua eta defentsa oinarri.

Hirugarren xedapen gehigarriak Nafarroako Gobernuaren esku uzten du Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioan euskararen erabile-

ra progresiboki normalizatzeko neurriak sustatzeko ardura.

Xedapen iragankor batek baimena ematen du administrazio publikoek abiarazitako prozedurak eta espedienteak hasi ziren hizkuntzan izapidez jarraitzeko, amaitu arte.

Legeak bi xedapen gehigarri ditu: lehenengoa bidez indargabetu egiten dira Euskarari buruzko abenduaren 15eko 18/1986 Foru Legea eta lege horri buruzko xedapen guztiak, eta bigarrenaren bidez, berriz, indargabetu egiten da azken xedapenetan bigarrena, Nafarroako Gobernuari legea erregelamendu bidez garatzeko baimena ematen diona.

## ATARIKO TITULUA

**1. artikulua.** Euskara eta gaztelania dira Nafarroako Foru Komunitateko hizkuntza ofizialak.

**2. artikulua.** Euskara eta gaztelania Nafarroako hizkuntza berekiak dira, eta, horren ondorioz, herritar guztiek dute horiek jakin eta erabiltzeko eskubidea.

**3. artikulua.** Euskararen erabilerari buruzko araudia lege honetan xedatutakoari eta lege hau garatze aldera Nafarroako Gobernuak ematen dituen gainerako xedapenei lotuko zaie Nafarroako Foru Komunitatean.

**4. artikulua.** Botere publikoek zainduko dute ez dadin hizkuntza dela-eta inor diskriminatu Nafarroako Foru Komunitatean, eta neurri egokiak hartuko dituzte helburu horrekin.

## LEHENDABIZIKO TITULUA

### KAPITULU BAKARRA

#### Herritarren eskubideak eta botere publikoen betebeharrak hizkuntzen arloan.

**5. artikulua.** 1. Nafarroako Foru Komunitateko herritar guztiek dute eskubidea Nafarroako hizkuntza ofizialak jakiteko eta erabiltzeko, bai ahoz eta bai idatziz.

2. Nafarroako Foru Komunitateko herritarrei honako funtsezko hizkuntza-eskubide hauek aitortzen zaizkie:

a) Administrazioarekin nahiz Foru Komunitatean kokatutako edozein erakunderekin edo entitatearekin harremanak euskaraz nahiz gaztelaniaz izateko eskubidea, ahoz nahiz idatziz.

b) Irakaskuntza bi hizkuntza ofizialetan jasotzeko eskubidea.

c) Aldizkariak eta irrati-telebistetako eta beste hedabideetako emanaldiak euskaraz jasotzeko eskubidea.

d) Jarduera profesionalak, laboralak, politikoak, sindikalak eta kulturalak euskaraz egiteko eskubidea.

3. Botere publikoek eskubide hauen erabilera ziurtatuko dute Nafarroako Foru Komunitateko lurraldean, eraginkorrak eta benetakoak izan daitezen.

## II. TITULUA

### Botere publikoen jarduerak

#### I. KAPITULUA

##### Euskararen erabilera Administrazio Publikoan

**6. artikulua.** 1. Herritar guztiei aitortzen zaie Administrazio Publikoarekiko harremanetan euskara nahiz gaztelania erabiltzeko eskubidea eta haiek hautatzen duten hizkuntza ofizialean artatuak izatekoa. Horretarako, neurri egokiak hartuko dira, eta beharrezko baliabideak bideratuko, eskubide horren gauzatzea progresiboki ziurtatzeko.

2. Pertsona batek baino gehiagok esku hartzen duen espediente edo prozeduretan, alde biek adostasunez erabakitako hizkuntza erabiliko dute botere publikoek.

**7. artikulua.** 1. Foru Komunitatearen mendeko erregistro publikoetan, direla Nafarroako Gobernuarenak, erakunde autonomoenak, Toki Administrazioarenak edo besterenak, egin diren hizkuntza ofizialean inskribatuko dira dokumentuak.

2. Foru Komunitatearen mende ez dauden erregistro publikoetan, Nafarroako Gobernuak euskararen erabileraren normalizazioa bultzatuko du, organo eskudunekin elkar hartuta.

3. Inskripzioak erakusteko nahiz ziurtagiriak luzatzeko, Nafarroako Foru Komunitateko ezein hizkuntza ofizialerako itzulpena ziurtatuko da.

#### 8. artikulua.

1. Nafarroako Foru Komunitatean kokatutako botere publikoek emandako arau nahiz ebazpen ofizial orok ele bitan idatzita egon beharko du, publikitate ofizialaren ondorioetarako.

2. Nafarroako Foru Komunitatean kokatutako botere publikoek esku hartzen duten egintza guztiak eta Administrazioaren jakinarazpen eta adierazpenak ele bitan idatzita egon beharko dute, salbu eta interesdun partikularrek Foru Komunitateko hizkuntza ofizialetako bat berariaz erabiltzea aurreratzen badute.

**9. artikulua.** 1. Justizia Administrazioarekiko harremanetan, herritar guztiek beren aukerako hizkuntza ofizialaz baliatu ahal izanen dute, eta ezin izanen zaie eskatu inolako itzulpenik.

2. Euskaraz aurkeztutako idazki eta agiriak, bai eta jardun judizialak ere, balio eta eragin-indar osokoak izanen dira.

3. Nafarroako Gobernuak, kasuko organoekin bat, Nafarroako Foru Komunitateko Justizia Administrazioan euskararen erabileraren normalizazioa bultzatuko du.

**10. artikulua.** 1. Nafarroako Foru Komunitateko lurralde, udal, biztanle-gune, geografia-gorabehera, hiri-bide eta, oro har, toponimo guztien izen ofizialak Nafarroako Gobernuak edota toki erakundeek finkatuko dituzte, nork bere eskumenen esparruan eta, betiere, jatorrizko izen euskaldun, erromantze ala gaztelaniazkoa errespetatuz, hizkuntza bakoitzari dagokion idazkera akademikoarekin. Aurreko lerrokadan aipatutako izen ofizialei buruzko gatazkarik pizten bada toki erakundeen eta Nafarroako Gobernuaren artean, Nafarroako Gobernuak ebatziko du, Euskaltzaindiari iritzia eskatu ondoren.

2. Bide publikoan jarritako bide-seinaleak ele bitan idatzita egonen dira, betiere nazioarteko arauak errespetatuz eta erabiltzaileentzako ulergarritasun- eta segurtasun-eskakizunak betez.

3. Bi izenok zeharo desberdinak badira, biak izanen dira ofizial, besteak beste, bideetan seinaleztatzearen ondorioetarako.

**11. artikulua.** Nafarroako Gobernuak itzultzaileen zerbitzu ofiziala herritarren eta Nafarroako Foru Komunitateko erakunde publikoen eskura egonen da, itzulpenen zehaztasuna eta baliokidetzatza juridikoa ziurtatzeko.

**12. artikulua.** Nafarroako Foru Komunitatean botere publikoek erabili beharreko inprimaki edo eredu ofizialak ele bitan idatzia egonen dira.

**13. artikulua.** 1. Lege honen 6. artikuluan aitorzen diren eskubideak gauzatzeko, botere publikoek Nafarroako Foru Komunitateari atxikitako langileak progresiboki euskalduntzeko neurriak hartuko dituzte.

2. Botere publikoek finkatuko dute zein lanpostutarako izanen de derrigorrezko bi hizkuntzak jakitea.

3. Nafarroako Foru Komunitateko Administrazio-oko gainerako lanpostuetara sartzeko egiten diren hauta-probetan hizkuntza ofizialen ezagupen-maila hartuko da kontuan merezimendu gisa, besteak beste. Administrazioak finkatuko du lanpostu-

maila bakoitzerako zein pisu izanen duen hizkuntza ofizialak jakiteak.

## II. KAPITULUA

### Euskararen erabilera irakaskuntzan

**14. artikulua.** Ikasle guztiei aitortzen zaie irakaskuntza euskaraz nahiz gaztelaniaz jasotzeko eskubidea irakasmila guztietan.

Hori horrela, Parlamentuak eta Nafarroako Gobernuak behar diren neurriak hartuko dituzte Nafarroako Foru Komunitateko hezkuntza-sisteman elebitasuna progresiboki orokortzeko.

**15. artikulua.** 1. Derrigorrezko Hezkuntza bukatu arte, derrigorrez irakatsi beharko da irakaskuntzarako hautatu ez den hizkuntza ofiziala.

2. Diru publikoz lagundutako ikastetxe pribatuek ikasketa arautuak irakasten badituzte oinarri hartuta Nafarroan ofiziala ez den hizkuntza bat, euskara eta gaztelania derrigorrezko ikasgai gisa irakatsi beharko dituzte.

**16. artikulua.** Nafarroako Gobernuak behar diren neurri guztiak hartuko ditu ikasleek, derrigorrezko ikastaldia bukatzerakoan, aukera berdinetan, bi hizkuntza ofizialak benetan erabiltzeko adina menperatuko dituztela ziurtatzeko; halaber, euskara ingurune guztietan ager dadin ziurtatuko du, horretarako euskara ohiko tresna bihurtuz barne- nahiz kanpo-jardueretan eta administrazio-ekintza eta -dokumentuetan.

**17. artikulua.** Ikasketa-planak 14., 15. eta 16. artikuluetan finkatutako helburuei egokituko zaizkie.

**18. artikulua.** Irakasle-prestakuntzako graduak nahiz graduondoko ikasketek egokitu egiten dituzte bere ikasketa-planak, etorkizuneko irakasleen erabateko gaitasuna lortze aldera euskaraz nahiz gaztelaniaz.

**19. artikulua.** Nafarroako Gobernuak eta unibertsitateko agintariek ezarri beharreko neurriak ezarriko dituzte euskararen erabilera normalizatzeko unibertsitateko irakaskuntzan.

**20. artikulua.** 1. Nafarroako Gobernuak, euskarazko irakaskuntza jasotzeko eskubidea baliagarri egite aldera, irakasleak progresiboki euskalduntzeko neurriak ezarriko ditu.

2. Orobat zehaztuko du zein lanpostutan jakin beharko den euskaraz, lege honetako 15. eta 16. artikuluetan ezarritakoa betetzeko.

### III. KAPITULUA

#### Euskararen erabilera hedabideetan eta industria kulturaletan

**21. artikulua.** Nafar guztiei aitortzen zaie esku-bidea gizarte-hedabideek ematen duten informazioa euskaraz zein gaztelaniaz jasotzeko.

Hori horrela, Nafarroako Gobernuak behar diren neurriak hartuko ditu euskararen presentzia hedabideetan areagotzeko, eta joera izanen da berdintzea, progresiboki, hizkuntza ofizial bien erabilera.

**22. artikulua.** Nafarroako Gobernuak, aurreko artikuluan agindutako bi hizkuntzen arteko berdintasuna ziurtatze aldera, Nafarroako Foru Komunitateko hedabideetan euskara lehenetsunez erabil dadin bultzatuko du.

**23. artikulua.** Nafarroako Gobernuak, 21. artikuluan aitortutako eskubidea progresiboki ziurtatze aldera, euskararen erabilera bultzatzeko eta babesteko neurriak hartuko ditu, eta, betiere, honako hauetan hedatu eta benetan erabiltzea ahalbidetuko du:

- Irrati-difusioan.
- Zinematografian.
- Antzerkian eta ikuskizunetan.
- Irudiaren eta soinuaren erreproduktzioarako baliabideetan.
- Informazioaren teknologia berrietan.
- Informazioaren eta/edo kulturaren hedapen soziala helburu duen bestelako edozein baliabideetan.

Horretarako, aurreko puntuok jaso eta arautuko dituzten legeetan, kasuan kasuko tituluak garatuko dira.

### IV. KAPITULUA

#### Jarduera sozioekonomikoa

**24. artikulua.** Enpresa publikoak.

Gobernuaren enpresa publikoek, bai eta haren emakidak hartzen dituzten enpresek ere, ziurtatu beharra dute bi hizkuntza ofizialen erabilera eta presentzia.

Horretarako, aurreko puntuok jaso eta arautuko dituzten legeetan, kasuan kasuko tituluak garatuko dira.

**25. artikulua.** Zerbitzu publikoko enpresak.

Zerbitzu publikoak ematen dituzten enpresek eta entitate publiko nahiz pribatuek, hala nola garraio-zerbitzuak, hornidurak, komunikazioak eta

bestelako zerbitzuak, ziurtatu beharra dute bi hizkuntza ofizialen erabilera eta presentzia.

**26. artikulua.** Jendearentzako arreta.

1. Bi hizkuntza ofizialen erabilera eta presentzia sustatuko da produktuak saltzen edota zerbitzuak ematen dituzten enpresetan eta establezimenduetan.

2. Nafarroako Gobernuak, neurri egokien bidez, euskararen erabilera sustatuko du 1. idatzatian aipatutako arloan.

**27. artikulua.** Itundutako edo diruz lagundutako enpresak.

Nafarroako Gobernuarekin edo Foru Komunitateko toki korporazioekin itun edo hitzarmenen bat sinatu duten enpresetan, edo horien diru-laguntzaren bat edo bestelako laguntzaren bat jaso dutenetan, baloratu egingen da euskararen erabilera eta presentzia.

Horretarako, aurreko puntuok jaso eta arautuko dituzten legeetan, kasuan kasuko tituluak garatuko dira.

**28. artikulua.** Kontsumitzaile eta erabiltzaileentzako informazioa.

Produktuen etiketetan, enbalajeetan eta jarraibideetan, bi hizkuntza ofizialen erabilera eta presentzia sustatuko da.

Horretarako, aurreko puntuok jaso eta arautuko dituzten legeetan, kasuan kasuko tituluak garatuko dira.

**29. artikulua.** Publizitatea.

Nafarroako lurraldean egiten den publizitate instituzionalak euskaraz eta gaztelaniaz izan behar du; hain zuzen ere, administrazioek egiten duten publizitateak, beren enpresa publikoek edo administrazioen emakidaren bat hartutako enpresek egiten dutenak, eta gainerako instituzioek eta zuzenbide publikoko korporazioek egiten dutenak.

**30. artikulua.** Jarduera profesionala eta laborala.

1. Nafarroako Gobernuak eta elkargo profesionalak jardueraren profesionala euskara erabil dadin sustatuko dute.

2. 2. Errotuluetan eta informazio finkoetan, lantokien barruko aldean agertu beharrekoa den informazio testudunetan hain zuzen, bi hizkuntzen erabilera eta presentzia sustatuko da.

Horretarako, aurreko puntuok jaso eta arautuko dituzten legeetan, kasuan kasuko tituluak garatuko dira.



## V. KAPITULUA

### Euskararen erabilera soziala eta beste alderdi instituzional batzuk

**31. artikulua.** Botere publikoek behar diren neurriak hartuko dituzte, eta behar diren bitartekoak jarriko, gizartearen bizitzako arlo guztietan sus-tatze aldera euskararen erabilera, herritarrek auke-ra izan dezaten hizkuntza horretan jarduteko merkataritza-, kultura-, elkartz- eta kirol-jarduere-tan, eta bestelako edozeinetan ere bai.

**32. artikulua.** Nafarroako Gobernuak euskara-ren irakaskuntza sustatuko du; batetik, euskaraz ez dakiten helduentzako irakaskuntza, eta, beste-tik, euskaldunak diren herritarren alfabetatzea. Horretarako, ente publiko bat sortuko du.

**33. artikulua.** Nafarroako Gobernuak, euskara-ren erabilera normalizatzeko lana errazte aldera, elkargune izanen den organo bat sortuko du, zeinaren helburua izanen baita aztertzea, bideratzea eta koordinatzea erakundeen ahaleginak eta jar-duerak lege honen aplikazioari eta garapenari dagokienez.

## VI. KAPITULUA

### Euskararen erabilera idatzizko hizkuntza ofizial gisa

**34. artikulua.** Nafarroako Gobernuak, Euskal-tzaindiak emaniko jarraibide linguistikoekin bat, euskararen bateratzea eta normalizazioa gauzatu daitezen behatuko du, Nafarroako Foru Komunita-teko lurraldean idatzizko hizkuntza ofizial komuna den heinean.

**Lehenengo xedapen gehigarria.** Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuari eskatzen dio, Foruaren Hobekuntzako 7. artikuluko 2. idatz-zatiko a) letran aurreikusitakoarekin eta ezarritako-arekin bat, Foruaren Hobekuntzako 9. artikulua aldatzeko ekimena har dezan, halako moduz non nafar guztiek eskubide eta libertate osoak, eta denek berak, izanen dituzten euskararen gainean, horri dagokionez euskara, gaztelaniarekin batera, koofiziala baita Nafarroan.

Hori horrela, hau da Foruaren Hobekuntzako 9. artikuluaentzat proposatzen den testua:

“9. artikulua. 1. Gaztelania eta euskara dira Nafarroako hizkuntza ofizialak.

2. Foru legez arautuko da hizkuntza ofizial hori-ek erabiltzeko askatasuna Administrazioan, hez-kuntzan, komunikabideetan eta jardun sozioeko-nomikoan; betiere, Estatuaren legedi orokorraren esparruan eta Europar Batasunak ezarritako jarraibide linguistikoaren barruan.”

**Bigarren xedapen gehigarria.** 1. Euskara eta euskal kultura zenbait autonomia erkidegoren eta zenbait lurralde administratibotako gizartearen onda-re immateriala direnez, Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuaren esku uzten du eta hari baimena ematen dio, bere eskumenen esparruan, hitzarmenak egin ditzan Euskal Autonomia Erkide-goarekin, azterketa, analisi eta garapen-lanak egi-terakoan sinergiak bilatzeko euskarari eta euskal kulturari berezkoak zaizkion ikerketa, sustapen eta garapen aplikatuaren arloetan; betiere, Foruaren Hobekuntzako 70. artikuluko 2. idatz-zatian eta harekin lotutako arauetan xedatutakoaren arabera, Estatuko legedi orokorraren esparruan eta Europar Batasunean ezarritako jarraibide linguistikoaren barruan.

Eta hori guztia Nafarroaren eskumen berekien errespetuan eta defentsan oinarrituta, eta nafar guztiei eskubide eta libertate osoak eta berdinak emateko euskarari eta euskal kulturari dagokie-nez.

2. Euskara eta euskal kultura Europar Batasu-neko bi estatutako zenbait erregioren ondare immaterial komuna dira, eta, horrenbestez, Euro-par Batasuneko erregio izaerako eta mugaz gain-diko kultur ondare komun bat. Hori dela eta, Nafa-rroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuari eskatzen eta baimena ematen dio, bere eskume-nen esparruan eta erregio izaerako eta mugaz gaindiko hitzarmenak araupetzen dituen araudia-ren arabera, ekimena hartzea erabaki eta, kasua bada, hitzarmenak egin ditzan euskarari eta eus-kal kulturari berezkoak zaizkion ikerketa, sustapen eta garapen aplikatuaren arloetan.

3. Nafarroako Parlamentuak orobat deklaratazen du bidezkoa dela Espainiako Erresumako Gobernuak, Europar Batasunaren esparruan, nazioarteko hitzarmen bat egin dezan Frantziako Errepublikarekin, euskarak eta euskal kulturak osatzen duten ondare immaterialari buruz; izan ere, euskara eta euskal kultura ondare immateria-la dira Europar Batasuneko herrialdeen eta Euro-pako gainontzeko herrialdeen artean sinatutako nazioarteko hitzarmen indardunen arabera. Harta-ra, Nafarroako Parlamentuak, edukiari erreparatu-ta bere eskumenekoa izan daitekeenari dagokio-nez, hitzarmen hori egin dadin eskatu eta baimentzen du.

Hirugarren xedapen gehigarria. Nafarroako Gobernuak sustatuko du, organo eskudunekin bat, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioan euskararen sustapena eta erabilera progresiboki normalizatzeko neurriak.

**Xedapen iragankor bakarra.** Lege hau indarrean sartu aurretik administrazio publikoetan abiarazitako prozedurak eta espedienteak hasi ziren hizkuntzan jarraituko dira amaitu arte.

**Azken xedapenetan lehenengoa.** Foru lege hau indarrean sartzen den egunetik aitzina, indargabatuta egonen da Euskarari buruzko abenduaren 15eko 18/1986 Foru Legea.

Orobat indargabetuko dira foru lege honek agindutakoekin bateraezinak diren edo lege honen aurka egiten duten maila bereko edo txikiagoko xedapen guztiak.

**Azken xedapenetan bigarrena.** Nafarroako Gobernuari baimena ematen zaio lege hau garatze eta aplikatze aldera behar diren erregelamenduzko arauak eman ditzan. Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean sartuko da legea indarrean.

---

**E saila:**  
**JABELDURAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK**

---

**Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Parlamentu-  
ra igor dezan Nafarroako Hondakinen Kudeaketarako Plan Integra-  
tua, Nafarroako Gobernuak abenduaren 27an onetsitakoa, parlamen-  
tuan eztabaida eta onets dadin.**

*NAFARROA BAI PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTU DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2010eko abenduaren 29an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Nafarroa Bai parlamentu-taldeak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita Parlamentura igor dezan Nafarroako Hondakinen Kudeaketarako Plan Integratua, Nafarroako Gobernuak abenduaren 27an onetsitakoa, parlamentuan eztabaida eta onets dadin.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Landa Garapenerako eta Ingurumeneko Batzordean eztabaidatzea eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2010eko abenduaren 30ean

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

**MOZIOAREN TESTUA**

Patxi Zabaleta Zabaletak eta Maiorga Ramírez Errok, Legebiltzarreko Erregelamenduaren babesean, honako mozio hau aurkeztu dute, Toki Administrazioari Batzordean eztabaidatu eta bozkatzeko:

Iragan abenduaren 27an, ustekabean, Nafarroako Gobernuak behin betikoz onetsi zuen Nafarroako Hondakinen Kudeaketarako Plan Integratua. Hartara, urratu egin zuen Landa Garapenerako eta Ingurumeneko kontseilari Begoña Sanzberro andreak eta Toki Administrazioari Batzordean hartutako konpromisoa, zeinaren arabera plana Parlamentura igorri behar baitzuten, eztabaidatu eta onesteko. Parlamentuak, horrenbestez, ez du aukerarik izan plan eztabaidatu eta onesteko.

Halaber, Parlamentu honek ekainean onetsitako mozio batean eskatutakoari jarraikiz irailetik azarora bitarte parte-hartze soziala gertatu bada ere, Gobernuak jendaurreko fasean eta alegazioak aurkezteko fasean mantendu du plan hori, entzungor eginez hondakinen tratamenduan inplikaturik dauden eta prozesuan parte hartu duten eragile gehienek eskaerei, zeinek plana erretiratzea eskatu baitute, denbora gehiagorekin eta posizio eta jarrera irekiago batekin hausnarketa egin ahal izan dadin, bai eta apustu komun bat ere plan horretako proposamenek hondakinen arloari dagokionez jaso beharko luketen filosofiari buruz.

Prozesu horretan parte hartu duten eragileek nahiz parlamentu-taldeen uste genuen Gobernuak konpromiso horiek beteko zituela. Gobernuak, ordea, behin betikoz onetsi du plana, eta ate eta itxaropen guztiak itxi ditu.

Hori dela eta, ondoko erabaki proposamena aurkeztu dugu:

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du Parlamentura igor dezan Nafarroako Hondakinen Kudeaketarako Plan Integratua, abenduaren 27an onetsitakoa, parlamentuan eztabaida eta onets dadin.

Nafarroako Parlamentuak arbuiatzen ditu Nafarroako Hondakinen Kudeaketarako Plan Integratuari buruzko parte-hartze sozialari dagokionez irekitako prozesuan Ingurumen, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza kontseilari Sanzberro andreak izandako jokabidea eta jarrera, bai eta Parlamentuko Toki Administrazioari Batzordean hartutako konpromisoa bete ez izana ere, plana izapidetze eta oneste aldera parlamentu honetara igortzeko konpromisoa hartu baitzuen.

Iruñean, 2010eko abenduaren 29an

Eledunak: Patxi Zabaleta eta Maiorga Ramírez

**Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da 2011ko martxoaren 1a baino lehen LTDko kate berriak ikusi ahal izateko Foru Komunitateko lurralde osoari estaldura ematera.**

*BERRIKUNTZA, ENPRESA ETA ENPLEGU BATZORDEAK ONETSIA*

Nafarroako Parlamentuko Berrikuntza, Enpresa eta Enplegu Batzordeak, 2010eko abenduaren 28an egindako bileran, ondoko erabakia onetsi zuen: "Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da 2011ko martxoaren 1a baino lehen LTDko kate berriak ikusi ahal izateko Foru Komunitateko lurralde osoari estaldura ematera."

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut.

Iruñean, 2010eko abenduaren 28an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

**Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da 2011ko martxoaren 1a baino lehen LTDko kate berriak ikusi ahal izateko Foru Komunitateko lurralde osoari estaldura ematera.**

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du, ahalik eta denbora-epe laburrenean eta, betiere, 2011ko martxoaren 1a baino lehen, LTDko kate berriak ikusi ahal izateko Foru Komunitateko lurralde osoari estaldura ematera.

**Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da zabalkunde instituzionaleko plan bat egin dezan Nafarroako Udal eta Kontzejuen Federazioarekin lankidetzan, tokiko hauteskundeetan sufragio-eskubidea sustatzeko.**

*ERAKUNDEEKIKO HARREMANETARAKO ETA GOBERNUAREN ELEDUNAREN BATZORDEAK ONETSIA*

Nafarroako Parlamentuko Erakundeekiko Harremanetarako eta Gobernuaren Eledunaren Batzordeak, 2010eko abenduaren 29an egindako bileran, ondoko erabakia onetsi zuen: "Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da zabalkunde instituzionaleko plan bat egin dezan Nafarroako Udal eta Kontzejuen Federazioarekin lankidetzan, tokiko hauteskundeetan sufragio-eskubidea sustatzeko."

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut.

Iruñean, 2010eko abenduaren 29an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

**Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da zabalkunde instituzionaleko plan bat egin dezan Nafarroako Udal eta Kontzejuen Federazioarekin lankidetzan, tokiko hauteskundeetan sufragio-eskubidea sustatzeko.**

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du sentsibilizazio plan instituzional bat egin dezan, Nafarroako Udal eta Kontzejuen Federazioarekin lankidetzan eta sufragio unibertsalerako eskubidea zuzen baliatzen dela ziurtatzeko xedez, elkarrekikotasun-hitzarmenak sinatu dituzten herrialdeetako herritarren nahiz Europar Batasuneko herritarren sufragio-eskubidea sustatze aldera tokiko hauteskundeetan, hartara lortuko baita ahal den herritar kopuru handiena inskribatzea kasuko erroldetan eta, bere garaian, eskubide hori baliatzea. Udalek ezarri beharreko neurri guztiak ezarriko dituzte prozesu hori errazteko eta pertsona horien inskripzioa eraginkorra izateko.

---

**F saila:**  
**GALDERAK**

---

**Galdera, turismoaren sustapenerako iragarkiak jarri diren komunikabideei eta horretarako erabilitako hizkuntzei buruzkoa.**

*AITOR ETXARRI PELLEJERO JAUNAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2010eko abenduaren 29an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Aitor Etxarri Pellejero jaunak aurkeztutako galdera, turismoaren sustapenerako iragarkiak jarri diren komunikabideei eta horretarako erabilitako hizkuntzei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 192. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2010eko abenduaren 29an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

**GALDERAREN TESTUA**

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari Aitor Etxarri Pellejero, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, honako galdera hau egin dio Nafarroako Gobernuari, idatziz erantzun diezaion:

- Zer hedabidetan argitaratu dira Nafarroako Foru Komunitatearen sustapen turistikoa egiteko iragarkiak 2010eko urtarrilaren 1etik abenduaren 15era bitarteko epean?

- Zer hizkuntza erabili dira? Zehaztu hedabide horietako bakoitzean jarritako iragarkien kopurua, iragarkien kostua eta erabilitako hizkuntza.

Iruñean, 2010eko abenduaren 16an

Foru parlamentaria: Aitor Etxarri Pellejero

## **Galdera, Nafarroako Enplegu Zerbitzuan izena emanda dauden 35 urtetik beherako gazteen kopuruari buruzkoa.**

*AITOR ETXARRI PELLEJERO JAUNAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2010eko abenduaren 29an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Aitor Etxarri Pellejero jaunak aurkeztutako galdera, Nafarroako Enplegu Zerbitzuan izena emanda dauden 35 urtetik beherako gazteen kopuruari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 192. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2010eko abenduaren 29an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

### **GALDERAREN TESTUA**

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari Aitor Etxarri Pellejero, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, honako galdera hau egin dio Nafarroako Gobernuari, idatziz erantzun diezaion:

- Zein da 2010ean Nafarroako Enplegu Zerbitzuan izena emanda dauden 35 urtetik beherako gazteen kopurua? Zehaztu izena emanda dauden gazteen kopurua, hilabeteen, adin-taldeen eta sexuaren arabera.

Iruñean, 2010eko abenduaren 16an

Foru parlamentaria: Aitor Etxarri Pellejero

## **Galdera, abeltzainei esnearengatik ordaintzen zaien prezioak esne-ustiategiak bideragarri egin ditzan Nafarroako Gobernuak hartutako neurriei buruzkoa.**

*AITOR ETXARRI PELLEJERO JAUNAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2010eko abenduaren 29an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Aitor Etxarri Pellejero jaunak aurkeztutako galdera, abeltzainei esnearengatik ordaintzen zaien prezioak esne-ustiategiak bideragarri egin ditzan Nafarroako Gobernuak hartutako neurriei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 192. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2010eko abenduaren 29an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

### **GALDERAREN TESTUA**

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari Aitor Etxarri Pellejero, Legebiltzarreko Erregelamenduen babesean, honako galdera hau egin dio Nafarroako Gobernuari, idatziz erantzun diezaion:

- Zer neurri hartu ditu Nafarroako Gobernuak abeltzainei esnearengatik ordaintzen zaien prezioak gure erkidegoko esne-ustiategiak bideragarri egin ditzan?

Iruñean, 2010eko abenduaren 20an

Foru parlamentaria: Aitor Etxarri Pellejero

## **Galdera, N-121-A errepideko zenbait tartetan istripu gehiago ez gertatzeko hartutako neurriei buruzkoa.**

*AITOR ETXARRI PELLEJERO JAUNAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2010eko abenduaren 29an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Aitor Etxarri Pellejero jaunak aurkeztutako galdera, N-121-A errepideko zenbait tartetan istripu gehiago ez gertatzeko hartutako neurriei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 192. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2010eko abenduaren 29an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

### **GALDERAREN TESTUA**

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari Aitor Etxarri Pellejerek, Legebiltzarreko Erregelamenduen babesean, honako galdera

hau egin dio Nafarroako Gobernuari, idatziz erantzun diezaión:

Aurtengo azaroaren 4an, parlamentari honek galdera bat egin zion Nafarroako Gobernuari (7-10/PES-00668), NA-411 eta NA-4100 errepideetako bidegurutzeko seinale horizontalei buruz. Gobernuak, erantzunean, bidegurutze horretako istripuei buruzko datuak aipatu zituen, esanez “hori guztia gorabehera, adierazi behar dizut istripuei buruzko gure datu-baseetan ez dagoela istripurik erregistratuta, orain arte, bidegurutze horretan.”

Hori dela eta, Nafarroako Gobernuak egin ez zitzaion galdera bati buruz igorritako erantzuna baliatuz, eta kontuan izanik NA-121-A errepidean istripu larriak gertatu direla, hildakoak ere eraginez, birmoldatu eta 2009ko ekainean inauguratu zenetik, ondokoa jakin nahi dut:

- Zer neurri hartu dira istripu gehiago gerta ez dadin istripuak gertatu diren toki bakoitzean?

Iruñean, 2010eko abenduaren 22an

Foru parlamentaria: Aitor Etxarri Pellejero

## **Galdera, 2011ko aurrekontuetako “Lurzoruaren Foru Bankuaren Salmenta” izeneko kontusailarekin zehazki hartuko diren neurriei eta eginen diren ekimen edo salmentei buruzkoa.**

*IOSEBA ECEOLAZA LATORRE JAUNAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2010eko abenduaren 29an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Ioseba Eceolaza Latorre jaunak aurkeztutako galdera, 2011ko aurrekontuetako “Lurzoruaren Foru Bankuaren Salmenta” izeneko kontusailarekin zehazki hartuko diren neurriei eta eginen diren ekimen edo salmentei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 192. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2010eko abenduaren 29an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

**GALDERAREN TESTUA**

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari Ioseba Eceolaza Latorrek, Legebiltzarreko Erregelamenduaren babesean, honako galdera hau aurkeztu du, Nafarroako Gobernuko Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza kontseilariak idatziz erantzun dezan:

Galdera, 2011ko aurrekontuetako "Lurzorua Foru Bankuaren Salmenta" izeneko kontusailari buruzkoa.

Zer neurri, ekimen edo salmenta egingen da, zehazki, aipatu kontusail hori baliatuta?

Iruñean, 2010eko abenduaren 27an

Foru parlamentaria: Ioseba Eceolaza Latorre

---

## **Galdera, Nafarroako epaitegien Iruñeko eraikina handitzeko obren egoerari buruzkoa.**

*AMANDA ACEDO SUBERBILA ANDREAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2010eko abenduaren 29an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Amanda Acedo Suberbila andreak aurkeztutako galdera, Nafarroako epaitegien Iruñeko eraikina handitzeko obren egoerari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 192. artikulua aginduta koari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2010eko abenduaren 29an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

**GALDERAREN TESTUA**

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeko foru parlamentari Amanda Acedo Suberbiolak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egin dio Nafarroako Gobernuko Lehendakari, Barne eta Justizia Departamentuari, idatziz erantzun dezan:

Nafarroako epaitegien Iruñeko eraikina handitzeko obrak zertan diren ikusita, eta kontuan hartuta gure taldeak beti erakutsi duela interesa Espainian eta, jakina, Nafarroan justizia modernizatzeke prozesua dela-eta, ondokoa jakin nahi dut:

1.- Nafarroako Justizia Jauregiko lokal berriak abian jartzeko unean, zertan da Bulego Judizial berriaren ezarpena eta hedapena? Zehaztuta al dago fisikoki non paratuko den? Zenbat langileri eragiten dio? Noiz jarriko da abian?

2.- Aurreikusita al dago espediente judizial digitala ezartzea? Baiezkoan, noiz eta nola ezarriko da? Hala baldin bada, espresuki jakin nahi da zer dokumentu-kudeatzaile erabiliko den edo, kasua bada, erabiltzen ari den.

3.- Posta arruntaren ordezkari posta segurua baliatzen ari al da edo baliatuko al da? Baliatuko baldin bada, noiz baliatuko da? Baliatzen ari baldin bada, zer jakinarazpeni aplikatzen zaio?

4.- Ministerioaren finantzaketa kudeatu eta lortu al da Lexnet sistema ezartzeko? Hala ez bada, zergatik?

5.- Zenbat jakinarazpen egin dira aurrean eta 2009an posta arruntaren bidez Nafarroako edo/eta gutxienez ere Iruñeko prozesu judiziale-tan? Zenbat jakinarazpen egin dira, egin baldin badira, posta segurua bidez?

6.- Aurreikusita al dago Asclepios kudeaketa-aplikazioa baliatzea auzitegi-medikuntzan? Hala baldin bada, zer egokitzapen egin behar dira edo egin behar izan dira? Hala ez bada, zergatik?

Iruñean, 2010eko abenduaren 28an

Foru parlamentaria: Amanda Acedo Suberbiola



---

**G saila:**  
**TXOSTENAK, DEIALDIAK ETA PARLAMENTUKO INFORMAZIOA**

---

## **Deialdia, Nafarroako Parlamentuaren zerbitzuko euskara itzultzaile izateko lanpostu huts bat lekualdatze-lehiaketa bidez betetzekoa.**

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2010eko abenduaren 29an egindako bilkuran, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Nafarroako Parlamentuaren zerbitzuko euskara itzultzaile izateko lanpostu huts bat lekualdatze-lehiaketa bidez betetzeari buruz Zerbitzu Orokorretako buruak, Prentsa, Argitalpen eta Protokolo Zerbitzuko buruak eta Zerbitzu Juridikoek eginiko txostenak ikusirik, eta ikusita, baita ere, Kontu-hartzailetzak emandako kreditu-ziurtagiria, hona ERABAKIA:

1. Nafarroako Parlamentuaren zerbitzuko euskara itzultzaile izateko lanpostu huts bat lekualdatze-lehiaketa bidez betetzeko deialdia onestea. Deialdia eranskinean jasotako oinarriei lotuko zaie.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean eta Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2010eko abenduaren 29an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

## **Deialdia, Nafarroako Parlamentuaren zerbitzuko euskara itzultzaile izateko lanpostu huts bat lekualdatze-lehiaketa bidez betetzekoa.**

### **OINARRIAK**

#### **1. oinarria.** Arau orokorrak.

1.1. Deialdi honen xedea da Nafarroako Parlamentuaren zerbitzuko euskara itzultzaile izateko lanpostu huts bat lekualdatze-lehiaketa bitartez betetzea.

1.2. Lekualdatze lehiaketa honetan honakoak izanen dira arau: Nafarroako Parlamentuan lanpostuak lekualdatze-lehiaketa bidez betetzeko Erregelamendua (2007ko martxoaren 7ko, 2010eko urriaren 22ko eta 2010eko abenduaren

7ko NPAO) eta 1991ko martxoaren 21eko Nafarroako Parlamentuko Langileen Estatutua. Horien osagarri izanen dira Nafarroako Administrazio Publikoetako Langileen Estatutuaren testu bategi-na onesten duen abuztuaren 30eko 251/1993 Legegintzako Foru Dekretua eta hura garatu eta beteazteko eman zen Lanpostuak Betetzeko Erregelamendua onesten duen azaroaren 6ko 215/1985 Foru Dekretua.

1.3. Deialdi honen bidez izendatutako izangaiak Nafarroako Parlamentuko funtzionarioentzat eta, bereziki, Nafarroako Parlamentuko teknikarien kidegoarentzat –goi mailako teknikarien eskala–ezarritako eginkizunak bete eta horien eskubide eta betebeharrak izanen ditu. Eginkizun horiek, orokorrean, Nafarroako Parlamentuko Langileen Estatutuko 8.2. artikuluan daude ezarrita teknikari-en kidegoarentzat: eginkizun profesionalak edo zuzendaritzakoak, horietan aritzeko unibertsitateko lizentziadun titulua izatea eskatzen dutenak eta Nafarroako Parlamentuko beste funtzionario batzuei esleiturik ez daudenak.

Zehazkiago, ondokoak izanen dira haren eginkizunak:

a) Interpretazio-eginkizunak: Parlamentarien mintzaldien aldibereko itzulpena, Legebiltzarreko organoen bilkuretan nahiz aldibereko itzulpena egin beharrekoa den ekitaldietan.

b) Itzulpen-eginkizunak: Legebiltzarreko organoek erabakitako testuak eta Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialaren euskarazko edizioan argitaratu beharreko testuak gaztelaniatik euskarara eta euskaratik gaztelaniara itzultzea.

c) Itzulpen-zerbitzuei agintzen ahal zaizkien gainontzeko eginkizunak.

1.4. Izendapenak Nafarroako Parlamentuko nomina eta plantillako funtzionario bihurtuko du izendatua, indarreko xedapenetan adierazitako eskubide eta betebeharrak guztiekin. Lanpostua A mailakoa da eta horren lansariak izanen dira maila horri dagozkionak gehi Nafarroako Parlamentuko

plantilla organiko indardunean zehazten diren osagarriak.

1.5. Lanaldia goiz eta arratsaldekoa izanen da, eta Parlamentuko organo eskudunek edonoiz aldatu ahal izanen dute, zerbitzuaren beharriaren arabera.

1.6. Deialdi honetako lanpostuari geroago beste zenbait gehitzen ahalko zaizkio; alegia, epaimahai kalifikatzaileak lehiakideen zerrenda, erdietsitako puntuazioaren arabera, organo dei-egileari igortzen dion egunean hutsik daudenak.

## **2. oinarria.**- Izangaien betebeharrak.

2.1. Nafarroako Parlamentuko Langileen Estatutuko 26. artikuluan xedatutakoaren arabera, lanpostu huts hori lekualdatze-lehiaketaren bidez beteko da. Lehiaketa horretan parte hartu ahal izanen dute jardunean, zerbitzu berezietan edo eszedentzia berezian dauden Comptos Ganberako eta Nafarroako Foru Komunitateko Administrazio funtzionarioek, eskaerak aurkezteko epea amaitzen den egunean honako baldintza hauek guztiak betetzen badituzte, betiere:

- a) A mailako funtzionarioa izatea.
- b) Lizentziatu, ingeniari edo arkitekto unibertsitate-titulua edukitzea.
- c) Euskararen Gaitasun Agiria edo ofizialki onartutako titulazio baliokidea edukitzea.
- d) Euskara itzultzaile-interprete lanpostu baterako izendatua izana, edo euskara interprete eginkizunetik itzultzaile lanpostu baterako, baldin eta lanpostu horren eginkizunen artean badaude deialdi honetako 1. oinarriko 3. idatz-zatian adierazitakoak.

2.2. Lanpostu-erreserbarik gabe borondatezko eszedentzian edo nahitaezko eszedentzian dauden funtzionarioek zilegi izanen dute lehiaketan parte hartzea, baldin eta deialdiak eskatzen dituen betebeharrak betetzen badituzte; horrela, berriz sartuko dira jarduneko zerbitzuan eta lanpostu bat behin betikoz esleitu zaien.

2.3. Aurreko baldintzak deialdi honen 3. oinarrian ezarritako epe eta eran frogatu beharko dira. Ulertuko da baldintza horiek bete beharko direla eskabideak aurkezteko epea amaitzen den egunerako. Era berean, izangaiek 2. arau honen 1. atalean aipatzen diren baldintzak bete beharko dituzte lanpostu-betetzearen prozesuak irauten duen denbora guztian. Lanpostu-betetzearen prozesua izendapenaren unean bukatuko dela ulertuko da.

## **3. oinarria.**- Eskabideak eta aurkezteko epea.

3.1. Lekualdatze-lehiaketan parte hartu nahi dutenek behar den eskaera, eskabide gisa, eredu ofizialaren arabera (deialdi honen I. eranskinean ageri da), aurkeztu beharko dute, eta bertan ondokoak azaldu: izen-abizenak, adina, nortasun agiri nazionalaren zenbakia, helbidea eta telefonoa, izanez gero.

Eskabideak Nafarroako Parlamentuaren erregistro orokorrean eskuratu ahalko dituzte interesdunek, edo, bestela, Nafarroako Parlamentuko webguneko ([www.parlamento-navarra.es](http://www.parlamento-navarra.es)) "lanpostuetarako deialdiak" izeneko atalean.

3.2. Honako hauek erantsi behar zaizkio eskabideari:

– Eskabideak aurkezteko ezarritako epea amaitzen den egunean deialdi honen 2. oinarrian ezarritako baldintza guztiak betetzen dituztela frogatzen duten ziurtagiriak.

– Alegatutako merezimenduen zerrenda ordenatua, II. eranskinean aipatzen den baremoari jarraikiz sailkatuak, eta haien frogagiriak, behar bezala kautotuak.

3.3. Deialdian parte hartzeko eskabideak Nafarroako Parlamentuko lehendakariari zuzenduko zaizkio eta Nafarroako Parlamentuko erregistro orokorrean aurkeztu beharko dira (Navas de Tolosa kalea, 1 – Iruña), edo Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legeko 38.4 artikuluan aurreikusitako moduetako batean, deialdi hau Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunetik hasita hamabost egun naturaleko epean. Eskabideak aurkezteko epea luzaezina da.

3.4. Ezgaitasun aitortua duten izangaiek, probak egin ahal izateko denbora edo baliabideetan egokitzapenik behar badute, zilegi izanen dute eskabidean haiek eskatzea, eta hartarako, aparte orri batean adierazi beharko dute nolako ezgaitasuna duten eta zer egokitzapen eskatzen duten. Horrekin batera, legeen arabera ezgaituak direla frogatzen duen agiria ere aurkeztu beharko dute, organo eskudunak emana.

## **4. oinarria.** Izangaien onarpena.

4.1. Eskabideak aurkezteko epea bukatuta, Nafarroako Parlamentuko lehendakariak onartuen eta baztertuen behin-behineko zerrenda onetsiko du, eta Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin aginduko du. Zerrenda horretan jasoko dira onartutako izangaien izen-deiturak. Izangai bazterturik ez badago, zuzenean onetsiko

da behin betiko zerrenda. Halaber, Nafarroako Parlamentuko iragarki-oholean eta webgunean ([www.parlamento-navarra.es](http://www.parlamento-navarra.es)) argitaratuko da.

4.2. Onartuen eta baztertuen behin-behineko zerrenda Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunetik hasita bost egun naturaleko epean, interesatuek egokitzat jotzen dituzten errekamazioak aurkeztu ahalko dituzte zerrenda horren aurka, eta akatsik egin badute, horiek zuzendu.

4.3. Errekamazioak egiteko epea iraganik eta horiek ebatzita, Nafarroako Parlamentuko lehen-dakariak onartuen eta baztertuen behin betiko zerrenda onetsiko du, eta Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratuko da. Halaber, Nafarroako Parlamentuko iragarki-oholean eta webgunean ([www.parlamento-navarra.es](http://www.parlamento-navarra.es)) argitaratuko da.

4.4. Ezarritako epean eskabiderik aurkeztu ez bada, Parlamentuko Mahaiak lehiaketa hutsik gelditu dela adieraziko du. Erabaki hori Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean eta Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratuko da.

**5. oinarria.** Epaimahai kalifikatzailearen kideak, eraketa eta jarduna.

5.1. Honakoak dira lekualdatze-lehiaketa epaitu behar duen epaimahaiko kideak:

Epaimahaiburua: Carlos Gil Martínez jauna, Nafarroako Parlamentuko Prentsa, Argitalpen eta Protokolo Zerbitzuko burua.

Ordezkoa: Miguel Esparza Oroz jauna, Nafarroako Parlamentuko legelari nagusiaren ondokoa.

Epaimahaikidea: Langileen Batzordeak proposatuta izendatu beharrekoa.

Ordezkoa: Langileen Batzordeak proposatuta izendatu beharrekoa.

Epaimahaiko idazkaria: Xabier Aristeguieta Oquiñena jauna, Nafarroako Parlamentuko euskara itzultzailea.

Ordezkoa: Ander Arana Bareño jauna, Nafarroako Parlamentuko euskara itzultzailea.

5.2. Epaimahai kalifikatzailea eratu beharko da izangai onartuen eta baztertuen behin betiko zerrenda argitaratu eman ondoko bost egunetako epean.

Epaimahaiaren eraketa eta jarduna baliozkoak izateko, epaimahaiburuak eta idazkariak edo haien ordezkoez bertan egon beharko dute.

Epaimahaiaren erabakiak botoen gehiengoaren bidez hartu beharko dira, eta epaimahaiburua kalitateko botoz baliatu ahalko da.

5.3. Deialdi honen arauak ulertu edo aplikatzean sor daitezkeen zalantzak edo errekamazioak, bai eta aurreikusita ez dauden kasuetan egin beharrekoa ere, epaimahaiak gehiengoz ebatziko ditu.

5.4. Epaimahaiko kideek ez dute parte hartuko, eta organo dei-egileari horren berri emanen diote, baldin eta parte ez hartzeari buruz Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legean aipatzen diren egoeretako batean badaude. Izangaiek, halaber, zilegi dute mahaikideak errefusatzeari, egoera horietako bat gertatzen denean.

**6. oinarria.** Merezimenduen kalifikazioa.

6.1. Nafarroako Parlamentuan lanpostuak lekualdatze-lehiaketa bidez betetzeko Erregelamenduko 5.1 artikuluan xedatuarekin bat, alegatu eta egiazaturiko merezimenduak deialdi honen II. eranskinean azaldutako baremoari jarraikiz kalifikatu eta puntuatuko ditu epaimahaiak.

6.2. Merezimendu guztiak alegatu eta agiri bidez frogatu beharko dira izangai bakoitzak lekualdatze-lehiaketa honetan parte hartzeko bere eskabidea aurkezten duen unean.

Epaimahaiak azalpenak eta datu osagarriak eskatzen ahalko ditu, lehiatzaileek alegatutako merezimenduen gainean.

6.3. Epaimahaiak ez du inolaz ere kontuan hartuko alegatu ez den eta agiri bidez frogatu ez den merezimendurik, eta merezimenduen atal bakoitzean ez du emanen adierazitako gehieneko puntuazioa baino altuagorik.

6.4. Lehiakideen puntuazioetan berdinketa gertatuz gero, administrazio publikoei zerbitzuak ematen antzintasun handiena dutenen alde ebatziko da. Hori eginagatik ere, berdinketak hautsi gabe jarraitzen badu, adinez zaharrena den lehiakidearen alde ebatziko da.

6.5. Merezimenduak kalifikatu ondoren, epaimahaiak jendaurrean paratuko ditu parte-hartzaileek lorturiko puntuazioak, hain zuzen ere Nafarroako Parlamentuko iragarki-oholean eta Nafarroako Parlamentuko webgunean, eta bost eguneko epea irekiko du interesdunek beren eskubidearen mesedetan merezimendu-balorazio horri buruz komeni zaiena alega dezaten.

6.6. Errekamazioak aurkezteko epea bukatu eta epaimahaiak horiek ebatzi ondoren, Nafarroako Parlamentuko iragarki-oholean eta webgunean argitaratuko da izangaiek lortutako behin betiko puntuazioen zerrenda. Iragarpen horretan jakina-

raziko da, era berean, proba praktikoa non, zer egunetan eta zer ordutan egingen den.

**7. oinarria.** Lanpostuaren eduki eta eginkizunei eta Nafarroako Parlamentuaren gaineko ezagutzari buruzko proba praktikoa.

7.1. Proba hiru ariketaz osatuko da. Probaren gehieneko puntuazioa 20 puntukoa izanen da.

Lehendabiziko ariketan, zenbait galderaren bidez, honakoan ezagutza baloratuko da: Nafarroako Parlamentuaren ezagutza eta, zehazki, Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobetzeari buruzko Lege Organikoa, Nafarroako Parlamentuaren Erregelamendua eta Nafarroako Parlamentuko administrazioko antolamenduari buruzko Erregelamendua. Ariketa honetan, gehienez, 6 puntu lortu ahalko dira.

Bigarren ariketa hauxe izanen da: epaimahaiak emandako gaztelaniazko bi testu, gehienez ere ordubetean, euskarara itzultzea. Izangaiek, ariketa hau egiteko, beraiek ekartzen dituzten hiztegiak erabili ahalko dituzte. Ariketa honetan, gehienez, 7 puntu lortu ahalko dira.

Hirugarren ariketa hauxe izanen da: euskarazko parlamentu-hitzaldi baten aldibereko itzulpena egitea gaztelaniara. Ariketa honetan, gehienez, 7 puntu lortu ahalko dira.

7.2. Lehendabiziko eta bigarren ariketak plika itxien sistemaren bidez zuzenduko dira. Horretarako, izangaiek, ariketa bakoitza bukatzean, folioak gutun-azal batean sartuko dituzte, izenik jarri gabe. Ondoren, izen-deiturak idatziko dituzte bestearekin batera aurkeztuko den gutun-azal txikiago batean. Bi gutun-azalak itxita aurkeztu beharko dituzte. Probak bukatzean, epaimahaiak bi gutun-azalazal zerbaki bera jarriko du. Ariketak zuzendu ondoren eta kasuan kasuko gutun-azal zerbakiari puntuak eman ondoren, gutun-azal txikia jendaurrean irekiko da, ariketa bakoitzaren egilearen izena zehazteko.

Gutun-azalak jendaurrean irekitzeko eguna izangaiei jakinaraziko zaie proba egiten ari diren bitartean.

Proba hori baztertzaila izanen da, eta gainditzeko, hiru ariketen artean gutxienez 10 puntu lortu beharko dira. Izangaiek lortutako puntuazioa Nafarroako Parlamentuaren iragarki-oholean eta webgunean ([www.parlamento-navarra.es](http://www.parlamento-navarra.es)) argitaratuko da.

7.3. Probak egiteko, ahal diren denbora- eta baliabide-egokitzapenak jarriko dira hala eskatzen duten minusbaliatuentzat, eskabidean azaldutakoren arabera.

**8. oinarria.** Izangaiei zerrenda ordenatua, lanpostuaren esleipena eta izendapena.

8.1. Epaimahaiak izangai guztien puntuazioa emanen du eta izangaiei zerrenda, erdietsitako puntuazioaren arabera, igorriko dio Nafarroako Parlamentuko Mahaiari. Horrek zerrenda hori Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu dadin aginduko du.

8.2. Nafarroako Parlamentuko Mahaiak puntuaziorik handiena lortu duen izangaiari esleituko dio lanpostua, eta haren izendapena Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean eta Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu dadin aginduko du.

**9. oinarria.** Lanpostuak hartzea.

9.1. Izendaturiko izangaiek lanpostua hartu beharko du izendapenari buruzko erabakia jakinarazten zaion egunaren hurrengo hamar egun naturalen epean barruan.

9.2. Aski justifikaturiko ezinbesteko kasuetan salbu, aipaturiko epean jabetza hartzen ez duen lehiakideak lehiaketaren jardunetatik sortutako eskubideei uko egiten diela ulertuko da eta, hala izanik, lanpostua beteko da aurreko oinarrian adierazirik zerrendan hurrengo den izangaiarekin.

**10. oinarria.** Aurkeztutako agiriak.

10.1. Izangaiek, baldin eta erreklamazio edo errekurtsorik jartzen ez bada, aurkeztu dituzten agiriak berreskuratzen ahalko dituzte, halaxe eskatu ondotik. Eskaera hiru hilabeteko epean aurkeztu ahalko da, beste hiru hilabete igaro direnean izendapen-erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratzen denetik.

10.2. Aurreko atalean adierazirik epea bukatzen bada agiriak itzultzeko eskatu gabe, ulertuko da izangaiek uko egin diola agiriak berreskuratzeari, eta horretarako eskubidea galduko du eta agiriak suntsitu egingen dira.

10.3. Erreklamazio edo errekurtsoren bat aurkeztzen baldin bada, aurkeztutako agiriak gorde egingen dira, ikuskatu eta aztertzeko. Agiriak berreskuratzen ahalko dira erreklamazioaren edo errekurtsoren tramitazioak horretarako aukera ematen duenean.

**11. oinarria.** Errekurtsioak.

11.1. Deialdi honen, deialdi honetako oinarrien eta Nafarroako Parlamentuko Mahaiak deialdi hau dela-eta hartzen dituen gainerako erabakien aurka ondoko errekurtsioetako bat aurkez daiteke:

a) Aukerako berraztertze-errekurtsioa, Legebiltzarreko Mahaiari zuzendua, hilabeteko epean,

egintza edo erabakia jakinarazi edo argitara eman eta biharamunetik kontaktzen hasita.

b) Administrazioarekiko auzi-errekurtsoa, Nafarroako Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzien Salari zuzendua, bi hilabeteko epean, erabakia argitara eman edo jakinarazi eta biharamunetik kontaktzen hasita.

11.2. Nafarroako Parlamentuko lehendakariak edo epaimahai kalifikatzaileak deialdi hau aplikatzeko erabakitzen dituzten gainerako egintzen aurka, gora jotzeko errekurtsoa jarri ahalko da, Nafarroako Parlamentuko Mahaiari zuzendua, egintza edo erabakia argitara eman edo jakinarazi eta biharamunetik kontaktzen hasita hilabeteko epean.

#### I. eranskina

..... J/A,  
..... urteko adinekoa,.....-n (.....)  
jaioa, helbide (hiria, kalea, zenbakia, solairua eta posta kodea), N.A.N. eta telefono-zenbaki hauek (finkoa eta mugikorra) dituena: .....; eta ondokoaren zerbitzuko funtzionarioa dena: ..... Hori horrela, adeitasunez

#### ADIERAZTEN DUT:

Nafarroako Parlamentuaren zerbitzuko euskara itzultzaile izateko lanpostu bat lekualdatze-lehiaketa bidez betetzeko deialdia onetsi dela, eta hartan parte hartu nahi dudala. Deialdia 2010eko .....aren .....(e)ko .... Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Deialdiaren 2. oinarrian eskatzen diren betebeharrak guztiak betetzen ditudala, eskaerak aurkezteko epea bukatzen den unean.

Deialdiaren 3. oinarriari jarraituz, eskabide honi erantsitako agiri batean zerrendatu ditudala, behar bezalako hurrenkeran, alegaturiko merezimenduak eta aurkezturiko frogagiri egokiak.

#### ESKATZEN DUT:

Eskabide honetan aipatzen den deialdian onartua izatea.

Iruñean, 201\_(e)ko .....aren ...(e)(a)n.

(sinadura)

NAFARROAKO PARLAMENTUKO LEHENDAKARI TXIT GARAIA.

#### II. eranskina

##### Merezimenduak baloratzeko baremoa

1) Administrazio publikoetan emandako zerbitzuak.

Administrazio publikoetan emandako zerbitzuen balorazioa eginen da deialdia argitaratzen den egunean izangaia onarturik duen antzintasunaren arabera, urte bakoitzeko puntu bat emanez.

– Oharrak:

Lehena. Urteen kopurua osoa ez bada, zerbitzuan egindako aldiari proportzionalki dagokion puntuazioa emanen zaie izangaiei.

Bigarrena. a) letra honi dagokion puntuazioa gehienez ere 25 puntukoa izanen da.

Hirugarrena. Lanaldi partzialean emandako zerbitzuen kasuan, horren arabera puntu-kopurua kenduko da.

Laugarrena. Deialdiaren argitaratze-egunaren ondoren emandako zerbitzuak ez dira baloratuko.

Bosgarrena. Funtzionarioa zerbitzu berezietan edo eszedentzia berezian egon den aldietako zerbitzuak, edo unitate organiko bateko buru edo zuzendari lanetan aritu den aldietakoak, egoera horietan sartzean zuen lanpostuan eman izan balitu bezala kontatuko dira.

2) Prestakuntza, irakaskuntza eta ikerketa.

a) Erakunde edo zentro publikoek eta unibertsitateek antolatutako prestakuntza-ekintzetan parte hartu izana: 0,10 puntu, kreditu akademiko edo horren baliokide bakoitzeko (10 irakastordu), gehienez ere 7 puntu eskuratu arte.

– Oharrak:

Lehena. Baloratu beharreko prestakuntza ekitaldien ikastordu zatikiak hainbanatuko dira.

Bigarrena. Ikastorduen kopurua agertzen ez duten ziurtagiriak kreditu batekoak izanen balira bezala baloratuko dira.

Hirugarrena. Ikasturte bateko iraupena agertzen duten ziurtagiriak 12 kreditukoak balira bezala baloratuko dira.

Laugarrena. Erakunde antolatzaileari buruzko betebeharrak betetzen ez dituztenean ere, administrazioak agindurik edo balidaturik eginak diren prestakuntza-ekitaldietan parte hartzea puntuazio berarekin puntuatuko da. Horien artean espresuki sartuko dira sindikatuek administrazio publikoetako Etengabeko Prestakuntzarako Itunen barruan antolatutakoak.

Bosgarrena. Atal honetan ez dira baloratuko ikasketa-titulu bat, unibertsitatekoa nahiz unibertsitatez kanpokoak, lortzeko ikasketak.

b) Kongresu edo jardunaldietan ponentziak edo komunikazioak aurkeztu izana, beka jasotako edo sarituriko zientzia- edo ikerketa- lanak egin izana, eta aldizkari espezializatuetan lanak argitaratu izana, bai eta argitaratutako itzulpenak ere: gehienez ere lau puntu, epaimahai kalifikatzaileak balioetsi beharrekoak, kontuan hartuz lana edo jarduerak bakarka edo taldean egin den eta biltzarrak edo argitalpenak udal, eskualde, nazio edo nazioarteko maila duen.

c) Sektore publikoan prestakuntza-ekintzak antolatu edo/eta horietan irakasle gisa parte hartzea: gehienez ere, lau puntu. Epaimahai kalifikatzaileak balioetsiko du, haien iraupenaren arabera.

– Oharrak, 2. idatz-zati osoari buruzkoak:

Lehena. Kontzeptu honetan aintzat hartuko dira, soilik, deialdiko lanpostuaren eginkizunekin zerikusia duten merezimenduak.

Bigarrena. 2. idatz-zati honi dagokion puntuazioa gehienez ere 15 puntukoa izanen da.

3) Epaimahaiak baloratuko dituen bestelako merezimenduak. 5 puntu gehienez ere.

1. Deialdian eskaturiko titulazioaz bestelako goi mailako tituluak: Puntu bat, gehienez.

2. Deialdian eskaturiko titulazioaz bestelako erdi mailako tituluak: 0,50 puntu, gehienez.

3. Doktore gradua: Puntu bat, gehienez.

4. Europar Batasuneko hizkuntzak jakitea: Honela baloratuko da: oinarrizko zikloetatik 0,50 puntu, eta goi mailako zikloetatik puntu bat. Nafarroako Hizkuntza Eskola Ofizialaren ziurtagiri baten edo horren baliokide baten bidez frogatu behar da. Helburu horretarako, kontuan hartuko dira Nafarroako Administrazio Publikoaren Institutuko zuzendari kudeatzailearen irailaren 13ko 210/2010 Ebazpenean ezarritako titulu eta ziurtagiriak. Ebazpen hori 2010eko irailaren 27ko 117. NAOn argitaratu zen.

3. idatz-zatiari buruzko oharra:

Hizkuntzen edo unibertsitate-ikasketen ikasturte osoak gainditu izanaren kasuan, epaimahaiak erabaki dezake ikasturte horiei puntuazio bat ematea, kasuko titulazioarentzat ezarritako puntuazioaren proportzionala.

## **Deialdia, Nafarroako Parlamentuaren zerbitzuko komunikazio teknikaria izateko lanpostu huts bat lekualdatze-lehiaketa bidez betetzekoa.**

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2010eko abenduaren 29an egindako bilkuran, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Nafarroako Parlamentuaren zerbitzuko komunikazio teknikaria izateko lanpostu huts bat lekualdatze-lehiaketa bidez betetzeari buruz Zerbitzu Orokorretako buruak, Prentsa, Argitalpen eta Protokolo Zerbitzuko buruak eta Zerbitzu Juridikoek eginiko txostenak ikusirik, eta ikusita, baita ere, Kontu-hartzaileak emandako kreditu-ziurtagiria, hona ERABAKIA:

**1.** Nafarroako Parlamentuaren zerbitzuko komunikazio teknikaria izateko lanpostu huts bat lekualdatze-lehiaketa bidez betetzeko deialdia onestea. Deialdia eranskinean jasotako oinarriei lotuko zaie.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean eta Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratadain agintzea.

Iruñean, 2010eko abenduaren 29an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

### **Deialdia, Nafarroako Parlamentuaren zerbitzuko komunikazio teknikaria izateko lanpostu huts bat lekualdatze-lehiaketa bidez betetzekoa.**

#### **OINARRIAK**

**1. oinarria.** Arau orokorrak.

1.1. Deialdi honen xedea da Nafarroako Parlamentuaren zerbitzuko komunikazio teknikaria izateko lanpostu huts bat lekualdatze lehiaketa bitartez betetzea.

1.2. Lekualdatze lehiaketa honetan honakoak izanen dira arau: Nafarroako Parlamentuan lanpostuak lekualdatze-lehiaketa bidez betetzeko Erregelamendua (2007ko martxoaren 7ko, 2010eko urriaren 22ko eta 2010eko abenduaren 7ko NPAO) eta 1991ko martxoaren 21eko Nafarroako Parlamentuko Langileen Estatutua. Horien osagarri izanen dira Nafarroako Administrazio Publikoetako Langileen Estatutuaren testu bategina onesten duen abuztuaren 30eko 251/1993 Legegintzako Foru Dekretua eta hura garatu eta betearazteko eman zen Lanpostuak Betetzeko Erregelamendua onesten duen azaroaren 6ko 215/1985 Foru Dekretua.

1.3. Deialdi honen bidez izendatutako izangaiak Nafarroako Parlamentuko funtzionarioentzat eta, bereziki, Nafarroako Parlamentuko teknikarien kidegoarentzat –goi mailako teknikarien eskala– ezarritako eginkizunak bete eta horien eskubide eta betebeharrak izanen ditu. Eginkizun horiek, orokorrean, Nafarroako Parlamentuko Langileen Estatutuko 8.2. artikuluan daude ezarrita teknikarien kidegoarentzat: eginkizun profesionalak edo zuzendaritzakoak, horietan aritzeko unibertsitateko lizentziadun titulua izatea eskatzen dutenak eta Nafarroako Parlamentuko beste funtzionario batzuei esleiturik ez daudenak.

Era berean, eta modu zehatzagoan, Nafarroako Parlamentuko administrazioko antolamenduari buruzko Erregelamendua ezarritako eginkizunetatik, bere mailari eta Prentsa, Argitalpen eta Protokolo Zerbitzuari dagozkien eginkizunak. Legebiltzarreko organoek hartutako erabakiei buruzko informazioa ematea eta Nafarroako Parlamentuaren webguneko informazio-erabakiak gaurkotzea, bai eta, oro har, Legebiltzarreko jarduerak publiko egiteko informazio-jarduerak eta Nafarroako Parlamentuaren argitalpenekin lotutako lanak ere.

1.4. Izendapenak Nafarroako Parlamentuko nomina eta plantillako funtzionario bihurtuko du izendatua, indarreko xedapenetan adierazitako eskubide eta betebeharrak guztiekin. Lanpostua A mailakoa da eta horren lansariak izanen dira maila horri dagozkionak gehi Nafarroako Parlamentuko plantilla organiko indarduneari zehazten diren osagarriak.

1.5. Lanaldia goiz eta arratsaldekoa izanen da, eta Parlamentuko organo eskudunek edoniz aldatu ahal izanen dute, zerbitzuaren beharriaren arabera.

**2. oinarria.** Izangaien betebeharrak.

2.1. Nafarroako Parlamentuko Langileen Estatutuko 26. artikuluan xedatutakoaren arabera, lanpostu huts hori lekualdatze-lehiaketaren bidez beteko da. Lehiaketa horretan parte hartu ahal izanen dute jardunean, zerbitzu berezietan edo eszedentzia berezian dauden Comptos Ganberako eta Nafarroako Foru Komunitateko Administrazio funtzionarioek, eskaerak aurkezteko epea amaitzen den egunean honako baldintza hauek guztiak betetzen badituzte, betiere:

a) A mailako funtzionarioa izatea.

b) Kazetaritzako lizentziadun unibertsitate-titulua edo haren baliokidetzat jotako titulua edukitzea.

Kazetaritzako lizentziadun lanpostu baterako izendatua izana, edo antzeko lanpostu baterako, baldin eta eginkizun nagusien artean deialdi honetako 1. oinarriko 3. idatz-zatikoak baditu.

2.2. Lanpostu-erreserbarik gabe borondatezko eszedentzian edo nahitaezko eszedentzian dauden funtzionarioek zilegi izanen dute lehiaketan parte hartzea, baldin eta deialdiak eskatzen dituen betebeharrak betetzen badituzte; horrela, berriz sartuko dira jarduneko zerbitzuan eta lanpostu bat behin betikoz esleitu zaien.

2.3. Aurreko baldintzak deialdi honen 3. oinarrian ezarritako epe eta eran frogatu beharko dira. Ulertuko da baldintza horiek bete beharko direla eskabideak aurkezteko epea amaitzen den egunerako. Era berean, izangaiek 2. arau honen 1. atalean aipatzen diren baldintzak bete beharko dituzte lanpostu-betetzearen prozesuak irauten duen denbora guztian. Lanpostu-betetzearen prozesua izendapenaren unean bukatuko dela ulertuko da.

### 3. oinarria. Eskabideak eta aurkezteko epea.

3.1. Lekualdatze-lehiaketan parte hartu nahi dutenek behar den eskaera, eskabide gisa, eredu ofizialaren arabera (deialdi honen I. eranskinean ageri da), aurkeztu beharko dute, eta bertan ondokoak azaldu: izen-abizenak, adina, nortasun agiri nazionalaren zenbakia, helbidea eta telefonoa, izanez gero.

Eskabideak Nafarroako Parlamentuaren erregistro orokorrean eskuratu ahalko dituzte interesdunek, edo, bestela, Nafarroako Parlamentuko webguneko ([www.parlamento-navarra.es](http://www.parlamento-navarra.es)) "lanpostuetarako deialdiak" izeneko atalean.

3.2. Honako hauek erantsi behar zaizkio eskabideari:

– Eskabideak aurkezteko ezarritako epea amaitzen den egunean deialdi honen 2. oinarrian ezarritako baldintza guztiak betetzen dituztela frogatzen duten ziurtagiriak.

– Alegatutako merezimenduen zerrenda ordenatua, II. eranskinean aipatzen den baremoari jarraikiz sailkatuak, eta haien frogagiriak, behar bezala kautotuak.

3.3. Deialdian parte hartzeko eskabideak Nafarroako Parlamentuko lehendakariari zuzenduko zaizkio eta Nafarroako Parlamentuko erregistro orokorrean aurkeztu beharko dira (Navas de Tolosa kalea, 1 – Iruña), edo Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura

Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legeko 38.4 artikuluan aurreikusitako moduetako batean, deialdi hau Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunetik hasita hamabost egun naturaleko epean. Eskabideak aurkezteko epea luzaezina da.

3.4. Ezgaitasun aitortua duten izangaiek, probak egin ahal izateko denbora edo baliabideetan egokitzapenik behar badute, zilegi izanen dute eskabidean haiek eskatzea, eta hartarako, aparteko orri batean adierazi beharko dute nolako ezgaitasuna duten eta zer egokitzapen eskatzen duten. Horrekin batera, legeen arabera ezgaituak direla frogatzen duen agiria ere aurkeztu beharko dute, organo eskudunak emana.

### 4. oinarria. Izangaiei onarpena.

4.1. Eskabideak aurkezteko epea bukatuta, Nafarroako Parlamentuko lehendakariak onartuen eta baztertuen behin-behineko zerrenda onetsiko du, eta Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin aginduko du. Zerrenda horretan jasoko dira onartutako izangaiei izen-deiturak. Izangaia bazterturik ez badago, zuzenean onetsiko da behin betiko zerrenda. Halaber, Nafarroako Parlamentuko iragarki oholean eta webgunean ([www.parlamento-navarra.es](http://www.parlamento-navarra.es)) argitaratuko da.

4.2. Onartuen eta baztertuen behin-behineko zerrenda Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunetik hasita bost egun naturaleko epean, interesatuek egokitzat jotzen dituzten erreklamazioak aurkeztu ahalko dituzte zerrenda horren aurka, eta akatsik egin badute, horiek zuzendu.

4.3. Erreklamazioak egiteko epea iraganik eta horiek ebatzita, Nafarroako Parlamentuko lehendakariak onartuen eta baztertuen behin betiko zerrenda onetsiko du, eta Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratuko da. Halaber, Nafarroako Parlamentuko iragarki oholean eta webgunean ([www.parlamento-navarra.es](http://www.parlamento-navarra.es)) argitaratuko da.

4.4. Ezarritako epean eskabiderik aurkeztu ez bada, Parlamentuko Mahaiak lehiaketa hutsik gelditu dela adieraziko du. Erabaki hori Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean eta Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratuko da.

### 5. oinarria. Epaimahai kalifikatzailearen kideak, eraketa eta jarduna.

5.1. Honakoak dira lekualdatze-lehiaketa epaitu behar duen epaimahaiko kideak:

Epaimahaiburua: Carlos Gil Martínez jauna, Nafarroako Parlamentuko Prentsa, Argitalpen eta Protokolo Zerbitzuko burua.



Ordezkoa: Pablo Díez Lago jauna, Nafarroako Parlamentuko legelari nagusia.

Epaimahaikidea: Langileen Batzordeak proposatuta izendatu beharrekoa.

Ordezkoa: Langileen Batzordeak proposatuta izendatu beharrekoa.

Epaimahaiko idazkaria: Luis Javier Fortún jauna, Nafarroako Parlamentuko Artxibo, Liburutegi eta Dokumentazio Zerbitzuko burua.

Ordezkoa: Manuel Pulido Quecedo jauna, Nafarroako Parlamentuko legelaria.

5.2. Epaimahai kalifikatzailea eratu beharko da izangai onartuen eta baztertuen behin betiko zerrenda argitara eman ondoko bost egunetako epean.

Epaimahaiaren eraketa eta jarduna baliozkoak izateko, epaimahaiburuak eta idazkariak edo haien ordezkoeak bertan egon beharko dute.

Epaimahaiaren erabakiak botoen gehiengoaren bidez hartu beharko dira, eta epaimahaiburua kalitateko botoaz baliatu ahalko da.

5.3. Deialdi honen arauak ulertu edo aplikatzean sor daitezkeen zalantzak edo erreklamazioak, bai eta aurreikusita ez dauden kasuetan egin beharrekoa ere, epaimahaiak gehiengoaz ebartziko ditu.

5.4. Epaimahaiko kideek ez dute parte hartuko, eta organo dei egileari horren berri emanen diote, baldin eta Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legean parte ez hartzeko aipatzen diren egoeretako batean badaude. Izangaiek, halaber, zilegi dute mahaikideak errefusatzeari, egoera horietako bat gertatzen denean.

## 6. oinarria. Merezimenduen kalifikazioa.

6.1. Nafarroako Parlamentuan lanpostuak leku-aldatze-lehiaketa bidez betetzeko Erregelamenduko 5.1 artikuluan xedatuarekin bat, alegatu eta egi-aztaturiko merezimenduak deialdi honen II. eranskinean azaldutako baremoari jarraikiz kalifikatu eta puntuatuko ditu epaimahaiak.

6.2. Merezimendu guztiak alegatu eta agiri bidez frogatu beharko dira izangai bakoitzak leku-aldatze-lehiaketan parte hartzeko bere eskabidea aurkeztzen duen unean.

Epaimahaiak azalpenak eta datu osagarriak eskatzen ahalko ditu, lehiatzaileek alegatutako merezimenduen gainean.

6.3. Epaimahaiak ez du inolaz ere kontuan hartuko alegatu ez den eta agiri bidez frogatu ez den

merezimendurik, eta ez du adierazitako gehieneko puntuazioa baino altuagorik emanen merezimenduen atal bakoitzean.

6.4. Lehiakideen puntuazioetan berdinketa gertatuz gero, administrazio publikoei zerbitzuak ematen antzintasun handiena dutenen alde ebartziko da. Hori eginagatik ere, berdinketak hautsi gabe jarraitzen badu, adinez zaharrena den lehiakidearen alde ebartziko da.

6.5. Merezimenduak kalifikatu ondoren, epaimahaiak jendaurrean paratuko ditu parte-hartzaileek lorturiko puntuazioak, hain zuzen ere Nafarroako Parlamentuko iragarki oholean eta Nafarroako Parlamentuko webgunean, eta bost eguneko epea irekiko du interesdunek beren eskubidearen mesedetan merezimendu-balorazio horri buruz komeni zaiena alega dezaten.

6.6. Erreklamazioak aurkezteko epea bukatu eta epaimahaiak horiek ebartzi ondoren, Nafarroako Parlamentuko iragarki oholean eta webgunean argitaratuko da izangaiek lortutako behin betiko puntuazioen zerrenda. Iragarpen horretan jakinaraziko da, era berean, proba praktikoa non, zer egunetan eta zer ordutan egingen den.

**7. oinarria.** Lanpostuaren eduki eta eginkizunei eta Nafarroako Parlamentuaren gaineko ezagutzari buruzko proba praktikoa.

7.1. Bi ariketa egin beharko dira, idatziz; bi ordu izanen dira, gehienez ere, ariketa bakoitza egiteko. Ariketa bakoitzeko hamar puntu lortu ahalko dira, eta proban, guztira, hogei puntu lortu ahalko dira gehienez.

Lehendabiziko ariketan, zenbait galderaren bidez, honakoen ezagutza baloratuko da: Nafarroako Parlamentuaren ezagutza eta, zehazki, Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobetzeari buruzko Lege Organikoa, Nafarroako Parlamentuaren Erregelamendua eta Nafarroako Parlamentuko administrazioko antolamenduari buruzko Erregelamendua.

Bigarren ariketa, proba praktikoa bat izanen da, deialdi honetako 3. idatz-zatiko 1. oinarrian azaldutako lanpostuaren edukiari eta eginkizunei buruzkoa.

7.2. Ariketak plika itxien sistemaren bidez zuzenduko dira. Horretarako, izangaiek, ariketa bakoitza bukatzean, folioak gutun-azal batean sartuko dituzte, izenik jarri gabe. Ondoren, izen-deiturak bestearekin batera aurkeztuko den gutun-azal txikiago batean idatziko dituzte. Bi gutun-azalak itxita aurkeztu beharko dituzte. Probak bukatzean, bi gutun-azalaren epaimahaiak zenbaki bera jarriko du. Ariketak zuzendu ondoren eta kasuan kasu-

ko gutun-azal zenbakiari puntuak eman ondoren, gutun-azal txikia jendaurrean irekiko da, ariketa bakoitzaren egilearen izena zehazteko.

Gutun-azalak jendaurrean irekitzeko eguna proba egiten ari den bitartean jakinaraziko zaie izangaiei.

Proba hori baztertzailea izanen da eta, bi ariketak kontuan hartuta, 10 puntu beharko dira, gutxienez, gainditzeko. Lortutako puntuazioa Nafarroako Parlamentuko iragarkien ohelean eta webgunean emanen da argitara.

7.3. Probak egiteko, ahal diren denbora eta baliabide egokitzapenak jarriko dira hala eskatzen duten minusbaliatuentzat, eskabidean azaldutakoaren arabera.

**8. oinarria.** Gainditu dutenen zerrenda ordenatua, lanpostuaren esleipena eta izendapena.

8.1. Epaimahaiak izangai guztien puntuazioa emanen du eta izangaiei zerrenda, erdietsitako puntuazioaren arabera, igorriko dio Nafarroako Parlamentuko Mahaiari. Horrek zerrenda hori Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu dadin aginduko du.

8.2. Nafarroako Parlamentuko Mahaiak puntuaziorik handiena lortu duen izangaiari esleituko dio lanpostua, eta haren izendapena Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean eta Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu dadin aginduko du.

**9. oinarria.** Lanpostuak hartzea.

9.1. Izangaiak izendatu eta hamar egun naturaleko epearen barruan hartu beharko du lanpostua, izendapenari buruzko erabakia jakinarazten zaionetik hasita.

9.2. Aipatu epean, aski justifikaturiko ezinbesteko kasuetan salbu, jabetza hartzen ez duen lehiakideak lehiaketaren jardunetatik sortutako eskubi-dei uko egiten diela ulertuko da eta, hala izanik, aurreko oinarrian adierazi zerrendan hurrengo den izangaiarekin beteko da lanpostua.

**10. oinarria.** Aurkeztutako agiriak.

10.1. Izangaiek, baldin eta erreklamazio edo errekurtsorik jartzen ez bada, aurkeztu dituzten agiriak berreskuratzen ahalko dituzte, halaxe eskatu ondotik. Eskaera hiru hilabeteko epean aurkeztu ahalko da, beste hiru hilabete igaro direnean izendapena Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratzen denetik.

10.2. Aurreko atalean ezarritako epea agiriak itzultzeko eskatu gabe bukatzen bada, ulertuko da izangaiek uko egin diola agiriak berreskuratzeari

eta horretarako eskubidea galduko du eta agiriak suntsitu egingen dira.

10.3. Erreklamazio edo errekurtsoren bat aurkezten baldin bada, aurkeztutako agiriak gorde egingen dira, ikuskatu eta aztertzeko. Agiriak berreskuratzen ahalko dira erreklamazioaren edo errekurtsoren tramitazioak horretarako aukera ematen duenean.

**11. oinarria.** Errekurtsuak.

11.1. Deialdi honen, deialdi honetako oinarrien eta Nafarroako Parlamentuko Mahaiak deialdi hau dela-eta hartzen dituen gainerako erabakien aurka ondoko errekurtsuetako bat aurkez daiteke:

a) Aukerako berraztertze-errekurtsua, Legebiltzarreko Mahaiari zuzendua, egintza edo erabakia jakinarazi edo argitara eman eta biharamunetik kontaktatu hasita hilabeteko epean.

b) Administrazioarekiko auzi-errekurtsua, Nafarroako Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzien Salari zuzendua, erabakia argitara eman edo jakinarazi eta biharamunetik kontaktatu hasita bi hilabeteko epean.

11.2. Nafarroako Parlamentuko lehendakariak edo epaimahai kalifikatzaileak deialdi hau aplikatzeko erabakitzen dituzten gainerako egintzen aurka, gora jotzeko errekurtsua jarri ahalko da, Nafarroako Parlamentuko Mahaiari zuzendua, egintza edo erabakia argitara eman edo jakinarazi eta biharamunetik kontaktatu hasita hilabeteko epean.

I. eranskina

..... J/A,  
..... urteko adinekoa,.....-n (.....) jaioa, helbide (hiria, kalea, zenbakia, solairua eta posta kodea), N.A.N. eta telefono-zenbaki hauek (finkoa eta mugikorra) dituenak: .....; eta ondokoaren zerbitzuko funtzionarioa dena: .....  
Hori horrela, adeitasunez

ADIERAZTEN DUT:

Nafarroako Parlamentuaren zerbitzuko komunikazio teknikari izateko lanpostu bat lekualdatze-lehiaketa bidez betetzeko deialdia onetsi dela, eta hartan parte hartu nahi dudala. Deialdia 2010eko .....aren .....(e)ko .... Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Deialdiaren 2. oinarrian eskatzen diren betebeharrak guztiak betetzen ditudala, eskaerak aurkezteko epea bukatzen den unean.

Deialdiaren 3. oinarriari jarraituz, eskabide honi erantsitako agiri batean zerrendatu ditudala, behar bezalako hurrenkeran, alegaturiko merezimenduak eta aurkezturiko frogagiri egokiak.

#### ESKATZEN DUT:

Eskabide honetan aipatzen den deialdian onartua izatea.

Iruñean, 201\_(e)ko .....aren ...(e)(a)n.

(sinadura)

NAFARROAKO PARLAMENTUKO LEHENDAKARI TXIT GARAIA.

#### II. eranskina

##### Merezimenduak baloratzeko baremoa

1) Administrazio publikoetan emandako zerbitzuak.

Administrazio publikoetan emandako zerbitzuen balorazioa deialdia argitaratzen den egunean izangaiak onarturik duen antzinatasunaren arabera eginen da, puntu bat urte bakoitzeko.

– Oharrak:

Lehena. Urteen kopurua osoa ez bada, zerbitzuan egindako aldiari proportzionalki dagokion puntuazioa emanen zaie izangaiei.

Bigarrena. a) letra honi dagokion puntuazioa gehienez ere 25 puntukoa izanen da.

Hirugarrena. Lanaldi partzialean emandako zerbitzuen kasuan, behar den zatia kenduko da.

Laugarrena. Deialdia argitaratu ondoren emandako zerbitzuak ez dira baloratuko.

Bosgarrena. Funtzionarioa zerbitzu berezietan edo eszedentzia berezian egon den aldietako zerbitzuak, edo unitate organiko bateko buru edo zuzendari lanetan aritu den aldietakoak, egoera horietan sartzean zuen lanpostuan eman izan baliu bezala kontatuko dira.

2) Prestakuntza, irakaskuntza eta ikerketa.

a) Erakunde edo zentro publikoek eta unibertsitateek antolatutako prestakuntza ekintzetan parte hartu izana: 0,10 puntu, kreditu akademiko edo horren baliokide bakoitzeko (10 irakastordu), gehienez ere 7 puntu eskuratu arte.

– Oharrak:

Lehena. Baloratu beharreko prestakuntza ekintzen ikastordu zatikiak hainbanatuko dira.

Bigarrena. Ikastorduen kopurua agertzen ez duten ziurtagiriak kreditu batekoak izanen balira bezala baloratuko dira.

Hirugarrena. Ikasturte bateko iraupena agertzen duten ziurtagiriak 12 kreditukoak balira bezala baloratuko dira.

Laugarrena. Erakunde antolatzaileari buruzko betebeharrak betetzen ez badituzte ere, administrazioak agindurik edo oniritzirik eginak diren prestakuntza ekitaldietan parte hartzea puntuazio berarekin puntuatuko da. Horien artean, espresuki, sindikatuak administrazio publikoetako Etengabeko Prestakuntzarako Itunen barruan antolatuak sartuko dira.

Bosgarrena. Atal honetan ez dira baloratuko ikasketa titulu bat, unibertsitatekoa nahiz unibertsitatez kanpokoa, lortzeko ikasketak.

b) Kongresu edo jardunaldietan ponentziak edo komunikazioak aurkeztu izana, beka jasotako edo sarituriko zientzia edo ikerketa lanak egin izana, eta aldizkari espezializatuetan lanak argitaratu izana, bai eta argitaratutako itzulpenak ere. gehienez ere lau puntu, epaimahai kalifikatzaileak balioetsi beharrekoak, lana edo jarduera bakarka edo taldean egin den eta biltzarrak edo argitalpenak herri, eskualde, nazio edo nazioarteko maila duen kontuan hartuz.

c) Sektore publikoan prestakuntza ekintzak antolatu edo/eta horietan irakasle gisa parte hartzea: gehienez ere, lau puntu. Epaimahai kalifikatzaileak balioetsiko du, haien iraupenaren arabera.

– Oharrak, 2. idatz-zati osoari buruzkoak:

Lehena. Idatz-zati honetan aintzat hartuko dira, soilik, deialdiko lanpostuaren eginkizunekin zerikusia duten merezimenduak.

Bigarrena. 2. idatz-zati honi dagokion puntuazioa gehienez ere 15 puntukoa izanen da.

3) Bestelako merezimenduak. Epaimahaiak ondokoak baloratuko ditu: 5 puntu gehienez ere.

1. Deialdian eskaturiko titulazioaz bestelako goi mailako tituluak: puntu bat, gehienez.

2. Deialdian eskaturiko titulazioaz bestelako erdi mailako tituluak: 0,50 puntu gehienez.

3. Doktore gradua: 1 puntu, gehienez.

4. Euskara eta Europar Batasuneko hizkuntzak jakitea:

Azpiatal honetan, honela baloratuko da Europar Batasuneko hizkuntzak jakitea: oinarritzko zikloagatik 0,50 puntu eta goi mailako zikloagatik, puntu bat.

Euskara jakitea honela baloratuko da: oinarritzko zikloagatik 0,60 puntu eta goi mailako zikloagatik 1,20 puntu. EGA titulua, Nafarroako Hizkuntza Eskola Ofizialaren ziurtagiria edo agiri baliokidea aurkeztu behar da.

Helburu honetarako, kontuan hartuko dira Nafarroako Administrazio Publikoaren Institutuko zuzendari kudeatzailearen irailaren 13ko 210/2010 Ebazpenean ezarritako titulu eta ziurtagiriak. Ebazpen hori 2010eko irailaren 27ko 117. NAO n argitaratu zen.

3. idatz-zatiari buruzko oharra:

Gaunditutako hizkuntza maila osoen kasuan edo unibertsitate-ikasketen kasuan, epaimahaiak erabaki dezake titulazioari eman beharreko puntuazioaren arabera puntuazio proportzionala ematea.

## **Deialdia, Nafarroako Parlamentuaren zerbitzuko administrazio kudeaketako teknikaria –teknikari diplomadunen eskalakoak– izateko lanpostu huts bat lekualdatze lehiaketa bidez betetzekoa.**

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2010eko abenduaren 29an egindako bilkuran, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Nafarroako Parlamentuaren zerbitzuko administrazio kudeaketako teknikaria –teknikari diplomadunen eskalakoak– izateko lanpostu huts bat lekualdatze lehiaketa bidez betetzeari buruz Zerbitzu Orokorretako buruak, Kontu-hartzailetza eta Gai Ekonomikoetarako Zerbitzuko buruak eta Zerbitzu Juridikoek eginiko txostenak ikusirik, hona ERABAKIA:

**1.** Nafarroako Parlamentuaren zerbitzuko administrazio kudeaketako teknikaria –teknikari diplomadunen eskalakoak– izateko lanpostu huts bat lekualdatze lehiaketa bidez betetzeko deialdia onestea. Deialdia eranskinean jasotako oinarriei lotuko zaie.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean eta Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratadain agintzea.

Iruñean, 2010eko abenduaren 29an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

## **Deialdia, Nafarroako Parlamentuaren zerbitzuko administrazio kudeaketako teknikaria –teknikari diplomadunen eskalakoak– izateko lanpostu huts bat lekualdatze lehiaketa bidez betetzekoa.**

### **OINARRIAK**

**1. oinarria.** Arau orokorrak.

1.1. Deialdi honen xedea da Nafarroako Parlamentuaren zerbitzuko administrazio kudeaketako teknikaria izateko lanpostu bat lekualdatze lehiaketa bitartez betetzea.

1.2. Lekualdatze lehiaketa honetan honakoak izanen dira arau: Nafarroako Parlamentuan lanpostuak lekualdatze-lehiaketa bidez betetzeko Erregelamendua (2007ko martxoaren 7ko, 2010eko urriaren 22ko eta 2010eko abenduaren 7ko NPAO) eta 1991ko martxoaren 21eko Nafarroako Parlamentuko Langileen Estatutua. Horien osagarri izanen dira Nafarroako Administrazio Publikoetako Langileen Estatutuaren testu bategina onesten duen abuztuaren 30eko 251/1993

Legegintzako Foru Dekretua eta hura garatu eta beteazteko eman zen Lanpostuak Betetzeko Erregelamendua onesten duen azaroaren 6ko 215/1985 Foru Dekretua.

1.3. Deialdi honen bidez izendatutako izangaiak Nafarroako Parlamentuko funtzionarioentzat eta, bereziki, Nafarroako Parlamentuko teknikarien kidegoarentzat –teknikari diplomadunen eskalaezarritako eginkizunak bete eta horien eskubide eta betebeharrak izanen ditu. Eginkizun horiek, orokorrean, Nafarroako Parlamentuko Langileen Estatutuko 8.2. artikuluan daude ezarrita teknikari- en kidegoarentzat: eginkizun profesionalak edo zuzendaritzakoak, horietan aritzeko unibertsitateko diplomadun titulua eskatzen dutenak eta Nafarroako Parlamentuko beste funtzionario batzuei esleiturik ez daudenak.

Era berean, eta modu zehatzagoan, Nafarroako Parlamentuko administrazioko antolamenduari buruzko Erregelamenduak ezarritako eginkizunetatik, bere mailari eta Kontu-hartzailetza eta Gai Ekonomikoetarako Zerbitzuari dagozkien eginkizunak.

a) Lansarien sistemaren kudeaketa integrala (klase pasiboen sistema, gizarte segurantza, zergak...).

b) Kontabilitate publikoaren sistemaren kudeaketa integrala (aurrekontuen arloa, kontabilitate orokorraren arloa, diruzaintzako kontrola, inbentarioen kontrola).

c) Kontabilitateari eta ordainsariei aplikatutako teknologien kudeaketa.

d) Zerbitzuak berezko dituen gainerako eginkizunak.

1.4. Izendapenak Nafarroako Parlamentuko nomina eta plantillako funtzionario bihurtuko du izendatua, indarreko xedapenetan adierazitako eskubide eta betebeharrak guztiekin. Lanpostua B mailakoa da eta horren lansariak izanen dira maila horri dagozkionak gehi Nafarroako Parlamentuko plantilla organiko indardunean zehazten diren osagarriak.

1.5. Lanaldia goiz eta arratsaldekoa izanen da, eta Parlamentuko organo eskudunek edonoz aldatu ahal izanen dute, zerbitzuaren beharriaren arabera.

1.6. Deialdi honetako lanpostuari geroago beste zenbait gehitzen ahalko zaizkio; alegia, epaimahai kalifikatzaileak lehiakideen zerrenda, erdietsitako puntuazioaren arabera, organo dei-egileari igortzen dion egunean hutsik daudenak.

## **2. oinarria.** Izangaien betebeharrak.

2.1. Nafarroako Parlamentuko Langileen Estatutuko 26. artikuluan xedatutakoaren arabera, lanpostu huts hori lekualdatze-lehiaketaren bidez beteko da. Lehiaketa horretan parte hartu ahal izanen dute jardunean, zerbitzu berezietan edo eszedentzia berezian dauden Comptos Ganberako eta Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioko funtzionarioek, eskaerak aurkezteko epea amaitzen den egunean honako baldintza hauek guztiak betetzen badituzte, betiere:

- a) B mailako funtzionarioa izatea.
- b) Unibertsitateko diplomadun, ingeniari tekniko edo arkitekto tekniko, edo ofizialki horien baliokidetzat hartzen den tituluaren jabe izatea.
- c) Administrazio kudeaketako teknikari, auditoretzako teknikari, enpresa zientzietako diplomadun, ogasun-kudeatzaile edo antzeko lanpostu baterako izendatua izana, baldin eta lanpostu horren eginkizun nagusien artean deialdi honetako 1. oinarriko 3. idatz-zatian adierazitakoak baditu.

2.2. Lanpostu-erreserbarik gabe borondatezko eszedentzian edo nahitaezko eszedentzian dauden funtzionarioek zilegi izanen dute lehiaketan parte hartzea, baldin eta deialdiak eskatzen dituen betebeharrak betetzen badituzte; horrela, berriz sartuko dira jarduneko zerbitzuan eta lanpostu bat behin betikoz esleituko zaie.

2.3. Aurreko baldintzak deialdi honen 3. oinarrian ezarritako epe eta eran frogatu beharko dira. Ulertuko da baldintza horiek bete beharko direla eskabideak aurkezteko epea amaitzen den egunerako. Era berean, izangaiek 2. arau honen 1. atalean aipatzen diren baldintzak bete beharko dituzte lanpostu-betetzearen prozesuak irauten duen denbora guztian. Lanpostu-betetzearen prozesua izendapenaren unean bukatuko dela ulertuko da.

## **3. oinarria.** Eskabideak eta aurkezteko epea.

3.1. Lekualdatze-lehiaketan parte hartu nahi dutenek behar den eskaera, eskabide gisa, eredu ofizialaren arabera (deialdi honen I. eranskinean ageri da), aurkeztu beharko dute, eta bertan ondokoak azaldu: izen-abizenak, adina, nortasun agiri nazionalaren zenbakia, helbidea eta telefonoa, izanez gero.

Eskabideak Nafarroako Parlamentuaren erregistro orokorrean eskuratu ahalko dituzte interesdunek, edo, bestela, Nafarroako Parlamentuko webguneko ([www.parlamento-navarra.es](http://www.parlamento-navarra.es)) "lanpostuetarako deialdiak" izeneko atalean.

3.2. Honako hauek erantsi behar zaizkio eskabideari:

– Eskabideak aurkezteko ezarritako epea amaitzen den egunean deialdi honen 2. oinarrian ezarritako baldintza guztiak betetzen dituztela frogatzen duten ziurtagiriak.

– Alegatutako merezimenduen zerrenda ordenatua, II. eranskinean aipatzen den baremoari jarraikiz sailkatuak, eta haien frogagiriak, behar bezala kautotuak.

3.3. Deialdian parte hartzeko eskabideak Nafarroako Parlamentuko lehendakariari zuzenduko zaizkio eta Nafarroako Parlamentuko erregistro orokorrean aurkeztu beharko dira (Navas de Tolosa kalea, 1 – Iruña), edo Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legeko 38.4 artikuluan aurreikusitako moduetako batean, deialdi hau Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunetik hasita hamabost egun naturaleko epean. Eskabideak aurkezteko epea luzaezina da.

3.4. Ezgaitasun aitortua duten izangaiek, probak egin ahal izateko denbora edo baliabideetan egokitzapenik behar badute, zilegi izanen dute eskabidean haiek eskatzea, eta hartarako, aparteko orri batean adierazi beharko dute nolako ezgaitasuna duten eta zer egokitzapen eskatzen duten. Horrekin batera, legeen arabera ezgaituak direla frogatzen duen agiria ere aurkeztu beharko dute, organo eskudunak emana.

## **4. oinarria.** Izangaien onarpena.

4.1. Eskabideak aurkezteko epea bukatuta, Nafarroako Parlamentuko lehendakariak onartuen eta baztertuen behin-behineko zerrenda onetsiko du, eta Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin aginduko du. Zerrenda horretan jasoko dira onartutako izangaien izen-deiturak. Izangai bazterturik ez badago, zuzenean onetsiko da behin betiko zerrenda. Halaber, Nafarroako Parlamentuko iragarki oholean eta webgunean ([www.parlamento-navarra.es](http://www.parlamento-navarra.es)) argitaratuko da.

4.2. Onartuen eta baztertuen behin-behineko zerrenda Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunetik hasita bost egun naturaleko epean, interesatuek egokitzat jotzen dituzten erreklamazioak aurkeztu ahalko dituzte zerrenda

horren aurka, eta akatsik egin badute, horiek zuzendu.

4.3. Erreklamazioak egiteko epea iraganik eta horiek ebatzita, Nafarroako Parlamentuko lehen-dakariak onartuen eta baztertuen behin betiko zerrenda onetsiko du, eta Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratuko da. Halaber, Nafarroako Parlamentuko iragarki oholean eta webgunean ([www.parlamento-navarra.es](http://www.parlamento-navarra.es)) argitaratuko da.

4.4. Ezarritako epean eskabiderik aurkeztu ez bada, Parlamentuko Mahaiak lehiaketa hutsik gelditu dela adieraziko du. Erabaki hori Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean eta Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratuko da.

**5. oinarria.** Epaimahai kalifikatzailearen kideak, eraketa eta jarduna.

5.1. Honakoak dira lekualdatze-lehiaketa epaitu behar duen epaimahaiko kideak:

Epaimahaiburua: Fernando Zulet Recalde jauna, Nafarroako Parlamentuko Kontu-hartzaile-tza eta Gai Ekonomikoetarako Zerbitzuko burua.

Ordezkoa: Javier Fortún Pérez de Ciriza jauna, Nafarroako Parlamentuko Artxibo, Liburutegi eta Dokumentazio Zerbitzuko burua.

Epaimahaikidea: Langileen Batzordeak proposatuta izendatu beharrekoa.

Ordezkoa: Langileen Batzordeak proposatuta izendatu beharrekoa.

Epaimahaiko idazkaria: Francisco Javier del Cerro Paúl jauna, Nafarroako Parlamentuko Zerbitzu Orokorretako burua.

Ordezkoa: Carlos Gil Martínez jauna, Nafarroako Parlamentuko Prentsa, Argitalpen eta Protokolo Zerbitzuko burua.

5.2. Epaimahai kalifikatzailea eratu beharko da izangai onartuen eta baztertuen behin betiko zerrenda argitara eman ondoko bost egunetako epean.

Epaimahaiaren eraketa eta jarduna baliozkoak izateko, epaimahaiburuak eta idazkariak edo haien ordezkoez bertan egon beharko dute.

Epaimahaiaren erabakiak botoen gehiengoaren bidez hartu beharko dira, eta epaimahaiburua kalitateko botoaz baliatu ahalko da.

5.3. Deialdi honen arauak ulertu edo aplikatzean sor daitezkeen zalantzak edo erreklamazioak, bai eta aurreikusita ez dauden kasuetan egin beharrekoa ere, epaimahaiak gehiengoaz ebatziko ditu.

5.4. Epaimahaiko kideek ez dute parte hartuko, eta organo dei-egileari horren berri emanen diote, baldin eta parte ez hartzeari buruz Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legean aipatzen diren egoeretako batean badaude. Izangaiek, halaber, zilegi dute mahaikideak errefusatzea, egoera horietako bat gertatzen denean.

**6. oinarria.** Merezimenduen kalifikazioa.

6.1. Nafarroako Parlamentuan lanpostuak lekualdatze-lehiaketa bidez betetzeko Erregelamenduko 5.1 artikuluan xedatuarekin bat, alegatu eta egi-aztaturiko merezimenduak deialdi honen II. eranskinean azaldutako baremoari jarraikiz kalifikatu eta puntuatuko ditu epaimahaiak.

6.2. Merezimendu guztiak alegatu eta agiri bidez frogatu beharko dira izangai bakoitzak lekualdatze-lehiaketa honetan parte hartzeko bere eskabidea aurkezten duen unean.

Epaimahaiak azalpenak eta datu osagarriak eskatzen ahalko ditu, lehiatzaileek alegatutako merezimenduen gainean.

6.3. Epaimahaiak ez du inolaz ere kontuan hartuko alegatu ez den eta agiri bidez frogatu ez den merezimendurik, eta merezimenduen atal bakoitzean ez du emanen adierazitako gehieneko puntuazioa baino altuagorik.

6.4. Lehiakideen puntuazioetan berdinketa gertatuz gero, administrazio publikoei zerbitzuak ematen antzintasun handiena dutenen alde ebatziko da. Hori eginagatik ere, berdinketak hautsi gabe jarraitzen badu, adinez zaharrena den lehiakidearen alde ebatziko da.

6.5. Merezimenduak kalifikatu ondoren, epaimahaiak jendaurrean paratuko ditu parte-hartzaileek lorturiko puntuazioak, hain zuzen ere Nafarroako Parlamentuko iragarki oholean eta Nafarroako Parlamentuko webgunean, eta bost eguneko epea irekiko du interesdunek beren eskubidearen mesedetan merezimendu-balorazio horri buruz komeni zaiena alega dezaten.

6.6. Erreklamazioak aurkezteko epea bukatu eta epaimahaiak horiek ebatzi ondoren, Nafarroako Parlamentuko iragarki oholean eta webgunean argitaratuko da izangaiek lortutako behin betiko puntuazioen zerrenda. Iragarpen horretan jakinaraziko da, era berean, proba praktikoa non, zer egunetan eta zer ordutan egingen den.

**7. oinarria.** Lanpostuaren eduki eta eginkizunei eta Nafarroako Parlamentuaren gaineko ezagutzari buruzko proba praktikoa.

7.1. Bi ariketa egin beharko dira, idatziz; bi ordu izanen dira, gehienez ere, ariketa bakoitza egiteko. Ariketa bakoitzeko hamar puntu lortu ahalko dira, eta proban, guztira, hogeitun puntu lortu ahalko dira gehienez.

Lehendabiziko ariketan, zenbait galderaren bidez, honakoen ezagutza baloratuko da: Nafarroako Parlamentuaren ezagutza eta, zehazki, Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobetzeari buruzko Lege Organikoa, Nafarroako Parlamentuko Langileen Estatutua, Nafarroako Parlamentuko administrazioari buruzko erregelamendua eta Nafarroako Parlamentuaren erregelamendu ekonomiko-finantzarioa.

Bigarren ariketa, proba praktikoa bat izanen da, deialdi honetako 3. idatz-zatiko 1. oinarrian azaldutako lanpostuaren edukiari eta eginkizunei buruzkoa.

7.2. Ariketak plika itxien sistemaren bidez zuzenduko dira. Horretarako, izangaiak, ariketa bakoitza bukatzean, folioak gutun-azal batean sartuko dituzte, izenik jarri gabe. Ondoren, izen-deiturak idatziko dituzte bestearekin batera aurkeztuko den gutun-azal txikiago batean. Bi gutun-azalak itxita aurkeztu beharko dituzte. Probak bukatzean, epaimahaiak bi gutun-azal batean zenbaki bera jarriko du. Ariketak zuzendu ondoren eta kasuan kasuko gutun-azal zenbakiari puntuak eman ondoren, gutun-azal txikia jendaurrean irekiko da, ariketa bakoitzaren egilearen izena zehazteko.

Gutun-azalak jendaurrean irekitzeko eguna izangaiak jakinaraziko zaie proba egiten ari diren bitartean.

Proba hori baztertzalea izanen da eta, bi ariketak kontuan hartuta, 10 puntu beharko dira, gutxienez, gainditzeko. Lortutako puntuazioa Nafarroako Parlamentuko iragarkien ohean eta webgunean emanen da argitara.

7.3. Probak egiteko, ahal diren denbora eta baliabide egokitzapenak jarriko dira hala eskatzen duten minusbaliatuentzat, eskabidean azaldutakoren arabera.

**8. oinarria.** Izangaien zerrenda ordenatua, lanpostuaren esleipena eta izendapena.

8.1. Epaimahaiak izangai guztien puntuazioa emanen du eta izangaien zerrenda, erdietsitako puntuazioaren arabera, igorriko dio Nafarroako Parlamentuko Mahaiari. Horrek zerrenda hori Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu dadin aginduko du.

8.2. Nafarroako Parlamentuko Mahaiak puntuaziorik handiena lortu duen izangaiari esleituko dio

lanpostua, eta haren izendapena Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean eta Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitara dadin aginduko du.

**9. oinarria.** Lanpostuak hartzea.

9.1. Izendaturiko izangaiak lanpostua hartu beharko du izendapenari buruzko erabakia jakinarazten zaion egunaren hurrengo hamar egun naturalen epearen barruan.

9.2. Aski justifikaturiko ezinbesteko kasuetan salbu, aipaturiko epean jabetza hartzen ez duen lehiakideak lehiaketaren jardunetatik sortutako eskubideei uko egiten diela ulertuko da eta, hala izanik, lanpostua beteko da aurreko oinarrian adieraziriko zerrendan hurrengo den izangaiarekin.

**10. oinarria.** Aurkeztutako agiriak.

10.1. Izangaiak, baldin eta erreklamazio edo errekurtsorik jartzen ez bada, aurkeztu dituzten agiriak berreskuratzen ahalko dituzte, halaxe eskatu ondotik. Eskatera hiru hilabeteko epean aurkeztu ahalko da, beste hiru hilabete igaro direnean izendapen-erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratzen denetik.

10.2. Aurreko atalean adieraziriko epea bukatzen bada agiriak itzultzeko eskatu gabe, ulertuko da izangaiak uko egin diola agiriak berreskuratzeari, eta horretarako eskubidea galduko du eta agiriak suntsitu egingen dira.

10.3. Erreklamazio edo errekurtsoren bat aurkeztzen baldin bada, aurkeztutako agiriak gorde egingen dira, ikuskatu eta aztertzeko. Agiriak berreskuratzen ahalko dira erreklamazioaren edo errekurtsoren tramitazioak horretarako aukera ematen duenean.

**11. oinarria.** Errekurtsuak.

11.1. Deialdi honen, deialdi honetako oinarrien eta Nafarroako Parlamentuko Mahaiak deialdi hau dela-eta hartzen dituen gainerako erabakien aurka ondoko errekurtsuetako bat aurkez daiteke:

a) Aukerako berraztertze-errekurtsua, Legebiltzarreko Mahaiari zuzendua, hilabeteko epean, egintza edo erabakia jakinarazi edo argitara eman eta biharamunetik kontaktzen hasita.

b) Administrazioarekiko auzi-errekurtsua, Nafarroako Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzien Salari zuzendua, bi hilabeteko epean, erabakia argitara eman edo jakinarazi eta biharamunetik kontaktzen hasita.

11.2. Nafarroako Parlamentuko lehendakariak edo epaimahai kalifikatzaileak deialdi hau aplikatzeko erabakitzen dituzten gainerako egintzen aurka, gora jotzeko errekurtsua jarri ahalko da,



Nafarroako Parlamentuko Mahaiari zuzendua, egintza edo erabakia argitara eman edo jakinarazi eta biharamunetik kontaktzen hasita hilabeteko epean.

#### I. eranskina

..... J/A,  
..... urteko adinekoa,.....-n (.....)  
jaioa, helbide (hiria, kalea, zenbakia, solairua eta posta kodea), N.A.N. eta telefono-zenbaki hauek (finkoa eta mugikorra) dituena: .....; eta ondokoaren zerbitzuko funtzionarioa dena: ..... . Hori horrela, adaitasunez

#### ADIERAZTEN DUT:

Nafarroako Parlamentuaren zerbitzuko administrazio kudeaketako teknikari izateko lanpostu bat lekualdatze-lehiaketa bidez betetzeko deialdia onetsi dela, eta hartan parte hartu nahi dudala. Deialdia 2010eko .....aren .....(e)ko .... Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Deialdiaren 2. oinarrian eskatzen diren betebeharrak guztiak betetzen ditudala, eskaerak aurkezteko epea bukatzen den uanean.

Deialdiaren 3. oinarriari jarraituz, eskabide honi erantsitako agiri batean zerrendatu ditudala, behar bezalako hurrenkeran, alegaturiko merezimenduak eta aurkezturiko frogagiri egokiak.

#### ESKATZEN DUT:

Eskabide honetan aipatzen den deialdian onartua izatea.

Iruñean, 201\_(e)ko .....aren ...(e)(a)n.

(sinadura)

NAFARROAKO PARLAMENTUKO LEHENDAKARI TXIT GARAIA.

#### II. eranskina.

Merezimenduak baloratzeko baremoa

1) Administrazio publikoetan emandako zerbitzuak.

Administrazio publikoetan emandako zerbitzuen balorazioa egiten da deialdia argitaratzen den egunean izangaiak onarturik duen antzinasunaren arabera, urte bakoitzeko puntu bat emanez.

– Oharrak:

Lehena. Urteen kopurua osoa ez bada, zerbitzuan egindako aldiari proportzionalki dagokion puntuazioa emanen zaie izangai.

Bigarrena. a) letra honi dagokion puntuazioa gehienez ere 25 puntukoa izanen da.

Hirugarrena. Lanaldi partzalean emandako zerbitzuen kasuan, horren arabera puntu kopurua kenduko da.

Laugarrena. Deialdiaren argitaratze-egunaren ondoren emandako zerbitzuak ez dira baloratuko.

Bosgarrena. Funtzionarioa zerbitzu berezietan edo eszedentzia berezian egon den aldietako zerbitzuak, edo unitate organiko bateko buru edo zuzendari lanetan aritu den aldietakoak, egoera horietan sartzean zuen lanpostuan eman izan balitu bezala kontatuko dira.

2) Prestakuntza, irakaskuntza eta ikerketa.

a) Erakunde edo zentro publikoek eta unibertsitateek antolatutako prestakuntza ekintzetan parte hartu izana: 0,10 puntu, kreditu akademiko edo horren baliokide bakoitzeko (10 irakastordu), gehienez ere 7 puntu eskuratu arte.

– Oharrak:

Lehena. Baloratu beharreko prestakuntza ekitaldien ikastordu zatikiak hainbanatuko dira.

Bigarrena. Ikastorduen kopurua agertzen ez duten ziurtagiriak kreditu batekoak izanen balira bezala baloratuko dira.

Hirugarrena. Ikasturte bateko iraupena agertzen duten ziurtagiriak 12 kreditukoak balira bezala baloratuko dira.

Laugarrena. Erakunde antolatzaileari buruzko betebeharrak betetzen ez dituztenean ere, administrazioak agindurik edo balidaturik eginak diren prestakuntza ekitaldietan parte hartzea puntuazio berarekin puntuatuko da. Horien artean, espresuki, sartuko dira sindikatuek administrazio publikoetako Etengabeko Prestakuntzarako Itunen barruan antolatutakoak.

Bosgarrena. Atal honetan ez dira baloratuko ikasketa tituluak, unibertsitatekoa nahiz unibertsitatez kanpokoa, lortzeko ikasketak.

b) Kongresu edo jardunaldietan ponentziak edo komunikazioak aurkeztu izana, beka jasotako edo sarituriko zientzia- edo ikerketa-lanak egin izana, eta aldizkari espezializatueta lanak argitaratu izana, bai eta argitaratutako itzulpenak ere. gehienez ere lau puntu, epaimahai kalifikatzaileak balioetsi beharrekoak, kontuan hartuz lana edo jarduerak bakarka edo taldean egin den eta biltzarrak edo argitalpenak udal, eskualde, nazio edo nazioarteko maila duen.

c) Sektore publikoan prestakuntza ekintzak antolatu edo/eta horietan irakasle gisa parte hartzea: gehienez ere, lau puntu. Epaimahai kalifikatzaileak balioetsiko du, haien iraupenaren arabera.

– Oharrak, 2. idatz-zati osoari buruzkoak:

Lehena. Kontzeptu honetan aintzat hartuko dira, soilik, deialdiko lanpostuaren eginkizunekin zerikusia duten merezimenduak.

Bigarrena. 2. idatz-zati honi dagokion puntuazioa gehienez ere 15 puntukoa izanen da.

3) Epaimahaiak baloratuko dituen bestelako merezimenduak: 5 puntu gehienez ere.

1. Deialdian eskaturiko titulazioaz bestelako goi mailako tituluak: puntu bat, gehienez.

2. Deialdian eskaturiko titulazioaz bestelako erdi mailako tituluak: 0,50 puntu gehienez.

3. Doktore gradua: puntu bat, gehienez.

4. Euskara eta Europar Batasuneko hizkuntzak jakitea:

Azpi atal honetan, honela baloratuko da Europar Batasuneko hizkuntzak jakitea: oinarritzko zikloagatik 0,50 puntu eta goi mailako zikloagatik, 1 puntu.

Euskara jakitea honela baloratuko da: oinarritzko zikloagatik 0,60 puntu eta goi mailako zikloagatik 1,20 puntu. EGA titulua, Nafarroako Hizkuntza Eskola Ofizialaren ziurtagiria edo agiri baliokidea aurkeztu behar da.

Helburu horietarako, kontuan hartuko dira Nafarroako Administrazio Publikoaren Institutuko zuzendari kudeatzailearen irailaren 13ko 210/2010 Ebazpenean ezarritako titulu eta ziurtagiriak. Ebazpen hori 2010eko irailaren 27ko 117. NAO on argitaratu zen.

3. idatz-zatiari buruzko oharra:

Gaunditutako hizkuntza maila osoen kasuan edo unibertsitate-ikasketen kasuan, epaimahaiak erabaki dezake titulazioari eman beharreko puntuazioaren arabera puntuazio proportzionala ematea.

## Deialdia, Nafarroako Comptos Ganberaren zerbitzuko auditore izateko lanpostu huts bat oposizio-lehiaketa bidez betetzekoa.

### Izendapen-proposamena

Nafarroako Comptos Ganberako auditore izateko lanpostu bat oposizio-lehiaketa bidez betetzeko deialdiko epaimahaiak izendapen proposamena igorri du abenduaren 23an, deialdi horretan puntuaziorik altuena lortu duen izangaiaren alde. Deialdia Lehendakaritza honen 2009ko abuztuaren 20ko erabakiaz onetsi zen eta 2009ko irailaren 22ko 92. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean eta irailaren 23ko 117. Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu zen. Izendapen-proposamena ikusita, Lehendakaritza honek, deialdiko 7. oinarriko 2. idatz-zatian ezarritakoari jarraikiz, ondokoa ERABAKI DU:

**Lehenengoa.** Jasotzat ematea eta onartzea Nafarroako Comptos Ganberaren zerbitzuko auditore lanposturako izendapen-proposamena, Karen

Moreno Orduña andrearen alde epaimahai kalifikatzaileak eginga, bera izan baita deialdia gainditu eta puntuaziorik altuena lortu duen izangaia.

**Bigarrena.** Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean eta Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea, eta proposaturiko izangaiari adieraztea ezen, proposamen hau Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta 30 egun naturaleko epean, deialdiko 7.3 oinarrian ezarritako agiriak Comptos Ganberan aurkeztu beharko dituela.

Iruñean, 2010eko abenduaren 23an

Comptos Ganberako lehendakaria: Helio Robleda Cabezas

## Nafarroako Comptos Ganberaren Erregistro Orokorraren 2011. urterako ordutegi ofiziala.

Comptos Ganberako lehendakariak, behean ageri den egunean, honako erabaki hau eman zuen:

«Nafarroako Comptos Ganberaren Erregistro Orokorraren ordutegi ofiziala zehazteko, erakunde honetara zuzendutako dokumentazio ofiziala jasotzeari dagokionez, lehendakaritza honek honakoa ERABAKI DU:

**Lehena.** Xedatzea Nafarroako Comptos Ganberaren Erregistro Orokorraren 2011. urterako ordutegi ofiziala 08:30ean hasi eta 14:30era bitartekoa izanen dela, astelehenetik ostiralera.

**Bigarrena.** Xedatzea ezen, Comptos Ganberara zuzendutako dokumentazioa erregistratzeari dagokionez, erakunde honen Erregistro Orokorra

itxita egonen dela Nafarroako Gobernuo Lehendakaritza, Justizia eta Barne kontseilariaren abenduaren 20ko 782/2010 Foru Aginduan ezarritako larunbat, igande eta jaiegunetan, bai eta uztailaren 6an, 11n, 12an, 13an eta 14an ere, egun horiek baliogabeak izanen baitira ondorio guztietarako.

**Hirugarrena.** Erabaki hau Comptos Ganberako idazkari nagusiari eta administratzaileari igortzea eta erakunde honetako iragarki oholean eta Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2010eko abenduaren 23an

Lehendakaria: Helio Robleda Cabezas

